

hh
hik hasi

192

20 urte euskal hezkuntza ospatuz



ARKITEKTURA, HEZKUNTZAKO MARKO ETA TRESNA • ANNA TARDOS •
LOMCE-RI EZ • 0-3 FORMAZIOA: FORMAZIO PERTSONALA • EMOZIOAK
GORPUTZ HEZKUNTZAN • ISILTASUNAREN GARRANTZIAZ • REBEKA ARRARAS

0-8

urte

8-12

urte

Nora joan da aitona

Alaine Agirre • Maite Gurrubiaga

Elker harrituta dago: guztiak diote aitona umetzen ari dela, eta berak berriz, ez dio horrelako aldaketarik ikusten. Egia da, tarteka, ateraldi arraroak dituela...



Kontenedore urdineko misterioa

Maikel Aierza • Belatz

Gorka harrituta dago: auzoko edukiontzi barrutik irtezen diren hotsekin, Zaborra eramatera joaten den bakoitzean izugarri beldortzen da.



Txomintxo eta Perutxo losuri fardela aldatzen

Peru eta Txomin Magdalenenak • Iosu Mibolena
Txomintxo eta Perutxo haur bihurtzen beste abentura bat; oraingoa, irakaslea falta dela-eta, bien artean saiatuko dira Iosu ikaskideari fardela aldatzen



Ez daukat irudimenik, eta zer?

Noemi Gallego • Leire Saizabera

Irudimen faltak beharrez betetzen ditu haur asko, batez ere eskolan ipuin bat amatzeko agintzen ditenean. Zer egin?




BIZI LITERATURA

elkar

www.elkarargialetxea.com

aurkibidea



10
gaia

ARKITEKTURA, MARKO ETA TRESNA

Arkitekturaren eta pedagogiaren arteko erlazioa erakusteko "The Best School in the World. Eskola Arkitektura Finlandian" proiektua ekarri dute Oteiza Museora. Arkitektura hezitzaileen jardunerako tresna dela diote adituek, eta, era berean, espazioak hezkuntza jarduera hori gertatzen deneko markoa ezartzen duela.



16
elkarrizketa

ANNA TARDOS

Emmi Pikler pediatra eta pedagogo hungariarrak (1902-1984) hamarkada luzetan Budapesteko Loczy institutuan egindako lanari jarraipena eman dio Anna Tardos haren alaba eta Haur Psikologian doktorea. "Hezkuntza ez da predikatzea; jarrera gizatiar bat da, gauzak nola egin, nola esan, pertsonak nola tratatu... hori guztia zaintzea da hezkuntza", esan du.

5 editoriala

6 hizpide izan da

8 hizpide izango da

10 gaia

ARKITEKTURA, hezkuntzarako marko eta tresna

16 elkarrizketa

ANNA TARDOS Pikler-Loczy institutuko zuzendaria

24 LOMCE-ri ez! EHn gure hezkuntza eraiki

28 0-3 zikloko hezitzaileen formazioa:
Formazio Pertsonala

32 ekarpenak

Gorputz-hezkuntzako III. topaketetan emozioei buruz jardun ziren

34 galdeidazue

Zer-nolako garrantzia dauka isiltasunak ikaste-prozesuan? VIRGINIA BELATEGI AZPIRI

40 hik hasi-ren proposamena

ENE KANTAK, Haurrentzako 20 abesti berri, fresko eta dantzagarri

42 Atzeko atetik

REBEKA ARRARAS

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostizu eta Arantzazu Muñoa. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Uxue Ugartemendia. Imanol Epelderren argazkia: Hitzen Uberan. Diseinua: Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Argazki Press. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2014-10-17). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SALA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



20. ikasturtean harpidetzen direnentzako **OPARIAK**



hik hasi
harpidetuta



**Sarrionandlaren
ipuin laburren
liburua**



Hazi Hezi
harpidetuta



**69 abesti
jolasteko
CDa**



+



+



www.hikhasi.com/harpidetza

editoriala

azaroa

28 urte berandu



Berri ona da euskara sare publiko osoko ikastetxeetara zabaltzeko aukera irekitzea, baina, Nafarroako Euskararen legea aldatzeko proposamena ez da aski. Aldatu ez, gainditu eta alboratu egin behar baita 1986ko legea, nafar guztien hizkuntza- eskubideak errespetatu daitezzen eta euskararen normalizazioaren bidean aurrera egin dadin.

28 urte berandu dator Nafarroako Euskararen Legearen aldaketa-proposamena. Eta ez da aski. D ere-dua Nafarroako sare publiko osora zabaltzea aurrerapauso handi bat da, bai. Aldaketa historikoa izango da. Arnasa eta sosegua ekarriko dizkie egunero-egunero euskaraz ikasi ahal izateko kilometro andana egin behar dituzten 1.400 ikasleei eta haien familiei. Bai, euskaraz ikasteko aukerak ugartuko ditu. Garrantzitsua da, bai, oso. Baina ez da aski euskararen normalizazioaren bidean.

Oraindik ere, eta legea aldatuta ere, euskara ez da Nafarroako hizkuntza ofiziala izango, eta hala behar luke. Legea aldatuta ere, nafar guztiek ez dituzte eskubide berberak izango —euskarazko irakaskuntza eskaintzeko gutxieneko ikasle kopurua Gobernuak zehaztuko baitu—, nafar guztiek ez dituzte aukera berberak izango, Nafarroa zatitzen jarraituko baitu legeak, zoznifikatzen, zein izan diatekeen euskaldun eta zein ez erabakitzen.

“Helburu nazionalistak” aipatu ditu Yolanda Barcina Nafarroako Gobernuako presidentek legearen aldaketa kritikatzeko. “Ez dira euskara erabiltzen ari modu kulturaleran, euskal nazionalismoaren nahi batzuk lortzeko baizik”, esan du UPNko buruak. Baina benetan erabaki politiko dena, helburu (espainiar) nazionalistak dituen, kilometroen arabera eskubideak murriztea da. Beldurraren mamua hauspotzen hasi da, euskara eta *ogena*, euskara eta *arriskua*, euskara eta *atzerapausoa* nahasiz: euskara sare publiko osora zabaltzeak Nafarroako hezkuntza-sistema kaltetuko duela esan dute Barcinak eta Jose Iribasek: “Eredu egonkor eta adostua nahasi egingo dute”.

Harritzekoa da, halaber PSNren jarrera. 28 urtean legea aldatu beharrik ikusi izan ez duenak, edo ezinezko jo izan duenak hamabost egunean egingo du orain aldaketa. Argi azaldu du PSNko parlamentari Pedro Rasconek lege aldaketak ez duela 1986koaren “funtsa” itxural-

datuko, hau da, benetan kanbiatu behar litzatekeena ukituko ez delako lasai da PSN. Kezkatzekoa da beraz. Legearen artikulua bat aldatzea ez da aski. Legea gainditu, bertan behera utzi behar da, nafar guztien hizkuntza- eskubideak eta euskara eta euskaraz ikasteko aukera-berdintasuna bermatuko dituen lege bat behar da.

Euskal Herria mapatik erazi arte

Bitartean, Nafarroako Gobernuak bere politikak zorrotz jarraitzen du. Euskal Herria mapatik kendu ezin duenez, Euskal Herriko mapa azaltzen duten liburuak kenduko ditu eskoletatik, “Nafarroako errealitate instituzionala” ez ei dute eta errespetatzen, Iribasen hitzetan. Nor da Nafarroako errealitatea benetan errespetatzen ez duena? Nor da euskaldunak ukatu nahi dituen? Nor da hezkuntza eta hizkuntza helburu nazionalisten menara erabili nahi dituen? Nor da nafarren hizkuntza- eta hezkuntza- eskubideak urratzen dituen?

hizpide



Nafarroako euskararen legea aldatu eta sare publiko osora zabaltzeko urratsa egin dute Parlamentuan

Nafarroako hainbat eremutan euskaraz irakastea galarazten zuen legea aldatzeko lege proposamena erregistratu dute PSN, Geroa Baik eta Ezkerrak Nafarroako Parlamentuan sare publiko osoan D ereduaz zabaldu eta euskaraz ikasi ahal izateko.

Ezkerrak proposatu du 1986ko Euskararen legea aldatzea, eta PSNk Geroa Baik eta Ezkerrak sinatu dute proposamena, Bilduk eta Aralar-NA-baik berriz, babesa bai baina sinadurarik ez dio eman, aldatu beharrekoa zonifikazio-eredua dela baitio. Zehazki, 26. artikulua aldatzeko proposamena egin dute, eremu ez-euskaldun deiturikoei loturikoa, izan ere artikulua hori erabiltzen baitu UPNren Gobernuak hainbat eremutan euskaraz ikasteko aukerarik gabe uzteko sare publikoko umeak.

28 urtean moldaketa bakarra izan du Nafarroako euskararen legeak, ahaleginak ugari izan badira ere. Orduan PSNren onarpena izan zuen legeak. Orditik gaurra legea gero eta murriztaileagoa izan da. Orain, aldaketa berriaren karietara Yolanda Barcinak PSNren aurka egin du jarrera alda dezan. Euskara sare publiko osora zabaltzea “eskari artifiziala” dela adierazi du Barcinak, euskara “hitz egiten ez den lekuetara” eraman nahi dutelako: “Ez dira euskara erabiltzen ari modu kulturalean, euskal nazionalismoaren nahi batzuk lortzeko baizik”. Legea aldatu eta D ereduaz zabaltzeak hezkuntzaren kalitatea arriskuan jarriko duela esan du UPNk, euskarazko hezkuntza Nafarroa osora zabaltzea diruz bideraezina dela argudiatuz.

Nafarroako Gobernuak Euskara irakasgaiko 22 eskola liburu legez kanpokotzat jo, eta erretiratzeko agindu du

Euskara irakasgaiko 22 liburu erretiratzeko agindua eman du Jose Iribas Nafarroako Hezkuntza kontseilariak. Liburu horiek ikasleak “adoktrinatzeko” baliagarri direla “ezker abertzaleko eta inguruko taldeentzat”, azaldu du Nafarroako Gobernuak, eta Euskal Herriko mapak erakustea da, besteak beste, horren adibide, Iribasen esanetan. “Nafarroaren errealitate instituzionala errespeturik gabe tratatzen dute”, argudiatu du Iribasek.

Ikastetxeei liburuak ez erabiltzeko agindua igorri die, eta argitaletxeei jakinarazi die edukiak aldatu ezean materialen zerrendatik kenduko dituztela.

Legez kanpo utzi nahi dituen liburuaren artean Ikaselkar, Erein eta Ibaizaibal-Edelvives argitaletxeen liburuak daude, baina baita Espainiako Anaya, Edebe eta Santillana argitaletxeek egindako hainbat liburu ere, sei Lehen Hezkuntzakoak eta hamasei Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoak.

Hezkuntza eta euskara-eragileek “inkisizioaren pareko” jo dute Iribas kontseilariak euskarazko liburuaren aurka hartutako neurria.

izan da

Sopuertan eskola publikoa eskatzen zuten gurasoek Zallara joatea onetsi dute

Astetako protesta izan da. Manifestaldi eta gose grebak tarteko, Sopuertan Lehen Hezkuntzako eskola publikoa izateko aldarria egin dute hainbat familiak. Eusko Jaurlaritzak negoziazioak hasi ahal izateko baldintza bat jarri die: haurrak arauz eskolatzea, Sopuertako umeek arauz kanpo hasi baitzuten ikasturtea irakasle boluntarioekin. Familiek Jaurlaritzaren eskaria onartu, haurrak Zallara joatea onetsi eta negoziazioak hasi dituzte datorren urtean Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailak herrian jarri ahal izateko Jaurlaritzarekin adostasuna erdietsi nahian.

Gaur egun Bizkaiko elizbarrutia-

ren jarrera da Sopuertako La Baluga eskolan Lehen Hezkuntzako eskaintza oztopatzen duena. Izatez eskola publikoa da La Baluga, udala da eraikinaren jabea eta diru publikoarekin egin da eraikuntza-lana, baina elizbarrutiaren orubean eraikia dago eskola, bertan Haur Hezkuntza baino ez emateko baldintzapean emana.

Hilabeteak daramatzate familiek eta hezkuntza eragileek Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin negoziatzen, baina oraindik akordiorik ez dute erdietsi. Bitartean Zallako Mimetiz eskolara joango dira haur gehienak, 30 kilometroko joan-etorria eginez egunero.

Hezkuntza eredu propioa aldarrikatu dute LOMCE legearen kontrako manifestazioetan

Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan hezkuntza eredu propioaren aldarrikapena eta Espainiako Gobernuaren hezkuntza erreformaren kontrako protesta entzun zen urriaren 11n, LOMCEn kontrako plataformak deituriko manifestazioetan, *Euskal Herrian gure hezkuntza eraiki. LOMCEri eta inposaketei ez lelopean.*

Hezkuntza eragileek LOMCEn aurrean konpromiso zehatzak eskatu dizkiete administrazioei, eta euskal hezkuntza Euskal Herritik eraikitze-



ko elkarlana eskatu dute. Jaurlaritzak legea onartzen ez duen arren, eta akordio bidez atzera bota nahi duen arren ezarri dira LOMCEn neurri batzuk, eta Nafarroan berriz, osoki.

Kristau Eskolako gatazka lan ituna indarrean jarriz eta kendutako sotalda zatia itzuliz amaitu da, akordio bidez

Lau urteko lan gatazka bizi izan dute Kristau Eskolek, baina urriaren 10ean sindikatuek eta zuzendaritzak sinaturiko akordioarekin amaitu zen. 100.000 familiari eragin die gatazkak eta 12.000 langileri. Lan ituna osorik berreskuratu ahal izan dute langileek eta soldata ere gaurkotzea onartu du zuzendaritzak.

Kristau Eskolak lan ituna hautsi zuen iaz, lan erreforma ezarriz, eta horrek gatazkak bideratzeko negoziazioak bertan behera utzi zituen. Gatazka 2010ean piztu zen, Espainiako Gobernuak langile publikoen soldata % 5 jaitea erabaki zuen eta Isabel Zelaak sare publikoko irakasleei ez eze, itunpekoei jaitea erabaki zuen. Itunpeko eskolek, beraz, diru gutxiago jaso zuten eta Kristau Eskolak soldata jaitea erabaki zuen. Auzitegira jo zuten sindikatuek, itunpeko langileak ez direla publikoak argudiatuta eta ez zegokiela, beraz, soldata jaitea. Epaileak arrazoi eman zien langileei. Kristau Eskolek, orduan, epaileak babesten zuen soldata ordaintzeko diru gutxiago zeukan. Baina azkenean epailearen ebazpena bete, eta zorra kitatu behariko du.

hizpide



Ziburuko Kaskarotenearen aldeko manifestazioa deitu dute azaroaren 8rako

Ziburuko Kaskarotenea ikastolari babesa erakusteko, *Ikastolak ez hunkilelopean* manifestazioa egingo da azaroaren 8an, arratsaldeko lauretan Ziburuko plazatik abiatuta. Manifestazioan parte hartzeko deia egin dute Euskal Herri osoko ikastoletako hainbat zuzendari, irakasle, ikasle eta gurasok.

Guy Poulou Ziburuko auzapezak ikastola uzteko agindu eta polizia bidaltzearekin mehatxatu ondoren egin dute manifestaziorako deia. “Okupatzen duzuen lekua jendez eta objektuz husteko agintzen dizuet. Hala egin ezean, kanporatzea gauzatzera behartuta ikusiko dut neure burua, beharrezkoa balitz, indar publikoaren laguntzarekin”, agindu die Poulouk.

Koldo Tellitu Ikastolen Elkarteko lehendakariak, Ziburuko auzapezaren jarrera kritikatzarekin batera, Kaskarotenearen egoeraren dimentsioa azpimarratu du: “Ez da ikastola bakar baten aurkako eraso; euskarari, euskal kulturari eta euskaraz bizi nahi duen herri bati egiten zaion eraso da”. Ikastola guztiak “eraso honi aurre egiteko bat eginda” daudela adierazi du Tellituk, baina bestelako erakunde, alderdi eta eragileen inplikazio beharra ere narbarmendu du, eta azaroaren 8an Ziburun egingo den manifestaziora joateko dei egin die euskal herritar guztei.

Bernard Acouturierrek hitzaldia eskainiko du Psikomotrizitate Praktikako Jardunaldian

Azaroaren 8an eta 9an, PEI-EIP Psikomotrizitate Praktikako III. Jardunaldiak egingo dira Bilbon “Haur zaila. Nerabearora bideratzea. Bere laguntza eta zaintza heziketa eta prebentzio psikomotrizitate praktikatik” izenburupean.

Azaroaren 8an, larunbatez, Bernard Acouturierrek hitzaldia emango du jardunaldiko gai nagusiaren inguruan, goizez zein arratsaldez. Horrez gain, beste bi aurkezpen ere egingo dira: batetik, Bidegintzak “Nola lagundu eta begiratzen dugu haur ‘zaila?’” izeneko mintzaldia egingo du; bestetik, berriz, L'Atelier Durangoko Dantza eta Arte Eszenikoaren Eskola nerabe eta gazteen mugimendu espresioaz jardungo da.

Aniztasunaren BAltan Jardunaldi Pedagogikoak

Barakaldoko Berritzeguneak antolatuta, XXVIII. Jardunaldi Pedagogikoak egingo dira azaroan, aniztasuna gai nagusizat hartuta. Lehen saioa urriaren 30ean egin zen arren, azaroan ere izango da bertan parte hartzeko aukera: azaroaren 5ean tailerrak egingo dira eta azaroaren 12an praktika onak erakutsiko dira.

Informazioa: bgune0428jp.blogspot.com

izango da

Azaroaren 9ra arte zabalik dago REGGIO EMILIA-ko jardunaldian izena emateko epea



Udazkeneko bezala, 0-3 urte bitarteko haurrekin ari diren hezitzaileentzako prestakuntza eskainiko du Hik Hasi. Aurtengoan, mundu zabalean hain ezagunak diren Italiako Reggio Emiliako Udal Haur Eskoletako esperientzia ezagutzeko aukera izango da azaroaren 14an Bilboko Bizkaia Aretoa eta azaroaren 15ean Donostiako Kursaal Jauregian. Maddalena Tedeschi eta Chiara Spaggiari Reggio Emiliako pedagogo eta hezitzaileek hango haur-eskolen teoria eta praktika pedagogikoa azalduko dute.

Mundu osoan dira ezagunak Reggio Emiliako haur-eskolak eta nazioartemailako aitortza dute. Aldebaitetik, hezkuntza komunitate osoaren

—haurrak, irakasleak, gurasoak, bestelako profesionalak, herritarra, bertako elkarteetako kideak...— parte hartzea dutelako ardatz eta gertuko gestioan oinarritzen direlako; eta, bestetik, Loriz Malaguzziren pedagogia darraitelako eta praktika horrek haur bakoitzaren garapen osoa duelako xede.

Jardunaldi honek gainera, bat egiten du 0-3 zikloko hezitzaileentzat antolatutako bi urteko formazioarekin. Izan ere, bigarren ikasturteak Loriz Malaguzziren filosofia du ardatz nagusietako bat.

Jardunaldi hauetan parte hartzeko izen-ematea www.bikbasi.com webgunean edota 943 37 14 08 telefono zenbakian egin daiteke.

Euskarabildua saioan IKTak jakintzaren mesedetan erabiltzen ikasteko aukera izango da

Azaroaren 6an Euskarabildua jardunaldia egingo da Donostiako San Telmo Museoa, IKTak jakintzaren mesedetan erabiltzen ikasteko. Irakaskuntza prozesu eta metodologietan IKTek dakartzaten abantailak eta erronkak mahai gaineratu nahi dira jardunaldian, azpimarra berezia jarriz hizkuntzen irakaskuntzan eta bereziki euskara ikasteko prozesuetan. Goizez hitzaldi eta mahai-inguruak egingo dira; arratsaldean, berriz, talde-dinamika saioak antolatu dira, goizean ikusitako horren inguruan hausnarketa egiteko.

Bertan hainbat alorretako eragileek eta adituek hartuko dute parte: instituzioek, hezkuntza eta IKTekin harremana dutenek, euskaltegiek, hizkuntza eskolek, eskoletako ordezkariak, IKT enpresek edo zentro teknologikoek... Besteak beste, Mondragon Unibertsitateko irakasle Maite Goñi, Unibertsitat Oberta de Catalunya-ko Antoni Marín Amatller, Iametzta Interaktiboko Iker Olkoz eta Asier Iturralde edota DeustoTech-eko Mari Luz Guenaga ariko dira hizlarien artean.

Informazio gehiago www.euskarabildua.eus helbidean lor daiteke.

GAIA

Espazioa, heziketarako marko eta tresna

Arkitekturak pedagogian duen eraginaz, Finlandia eredu hartuta





Arkitekturaren eta pedagogiaren artean zer nolako erlazioa dagoen aztertzeko “The Best School in the World. Eskola Arkitektura Finlandian” proiektua ekarri dute Oteiza Museora. Finlandiako hezkuntza-eremua arrakastatsuetan arkitekturak eta diseinuak zer nolako ekarpena egin duten azertu dute, hango zazpi eskoletako esperientzia erakutsiz. Arkitektura hezitzaileen jardunera-ko tresna dela diote adituek, eta, era berean, espazioak hezkuntza jarduerara hori gertatzen deneko markoa ezartzen duela. Horregatik, arkitekturak sekulako indar pedagogikoa izan dezakeela uste dute.

G

Eskola hesiarekin itxita eduki edo herriko plazara irekia egon, berdin ote dio? Haurarentzat gauza bera ote da gela txikietan aritzea edota areto zabal-letan jardutea? Eragin bera ote dute ikaskuntza-prozesuan espazio mota guztiek?

Eskola arbola baten azpian sortu zen, Louis Khan arkitektoaren teoriaren arabera. Pertsona bat, irakaslea zela jakin gabe, beste batzuekin eztabai-datzen hasi zen hainbat gairen inguruan. Beste haiek ere ez zekiten ikasle zirenik, baina gertakari hark eurengan izan zuen eragin onuragarriaz oharturik, euren seme-alabek ere maisu hari entzun ziezaioten desiratu zuten. Horretarako espazioak eraikitzen hasi ziren, eta hala jaio zen lehenengo eskola.

Zer funtzio betetzen du, ordea, lehen eskola izan zen zuhaitz hark? Ba ote du eraginik ingurune fisikoak ikaskuntza-prozesuan? Nolako rola jokatzen du arkitekturak hezkuntza-guneen esparruan? Zein erlazio dago eskola bateko espazioaren antolaketaren eta eremu horretan egiten den pedagogia motaren artean?

Arkitekturaren eta hezkuntzaren artean zer nolako erlazioa dagoen aztertzeko “The Best School in the World. Eskola Arkitektura Finlandian” proiektua ekarri dute Oteiza Museora Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren ekimenez. Izen bereko erakusketa ez ezik, mahai-inguruak, programa pedagogikoak eta bisita gi-

datuak ere antolatuko dituzte urtarila-ren 11 bitartean. Proiektu horren bidez Finlandiako zazpi hezkuntza-eremu arrakastatsutan arkitekturak eta diseinuak egindako ekarpena analizatu nahi izan da, eta, bide batez, arkitektu-raren eta pedagogiaren artean egon daitezkeen loturen inguruan hausnar-tu.

Arkitektura hezitzaileen jardunera-ko osagarri bat da, laguntza bat; era berean, arkitekturak hezkuntza jar-duera hori gertatzen deneko markoa ezartzen du. Horregatik arkitekturak sekulako indar pedagogikoa izan de-zake. Ondorio horixe atera zuten Ja-vier Larraz, Oscar Perez eta Clara Esla-va arkitektoek eta Alfredo Hoyuelos pedagogoak arkitekturak hezkuntzan duen eraginaren inguruan urriaren 23an Oteiza Museoan egin zuten mahai-inguruan. Lau adituon irudiko, hezkuntzarako espazioak pedagogi-koa izan behar du, arkitekturak hau-rrak hez baititzake formen, espazioen, materialen, argiaren, testuren, propor-tzioen... bitartez.

Etxearen atzetik eskola da haurrak ezagutzen duen lehen ingurune fisi-koa. Eguneko orduen ia herena ematen du bertan, eta espazio horrek eragi-na du haurraren haziera eta heziketan. Perezen esanetan, indibiduo autono-mo eta izaki sozial bihurtzen gara es-kolan, eta prozesu horretan gure ingu-runeak isilean hitz eginez eragiten di-gu, modelatu egiten gaitu. Espazioak ez du esplikaziorik ematen, ez du me-



Javier Torres, Javier Larraz, Clara Slava, Oscar Perez eta Alfredo Hoyuelos Oteiza museoko mahai-inguruan.

arkitekturak pedagogian duen eragina

todologia zehatzik erabiltzen, haurrei ez die ongi edo gaizki zer egin duten esaten, baina hezkuntza garatzen deneko plaza da eta horrek baditu ondorioak: “Espazioak zuzenean eragiten du haurren formazio sentsorialean. Haurraren gaitasun espaziala eskolara mugatzen da sarri. Ingurune fisikoak eta arkitekturak zuzenean baldintzatzen du hezitzaileek eta haurrek jarduteko eta harremanetan egoteko duten modua. Hori imajina dezakeguna baino askozaz ere garrantzitsuagoa da. Zalantzarik gabe, espazio atsegin bat erabiltzaileentzat akuilu eta pizgarri izan daiteke, —izan eskala edo proportzioagatik, argiaren erabileragatik, materialengatik edota erosotasunagatik—”. Horrexegatik, arkitektoaren aburuz, espazio sosegatuak, lasaiak eta argitsuak eraiki behar dira; proportzio eta eskalagatik tentsiorik izango ez dutenak, eta ondorioz, haurren heziketa-prozesua eskailera maila bat goragotik abiatzeko aukera emango dutenak. Hala, irakasleek ez lukete ikasleei besteekin harremanak izatea zer den azaltzeko beharrik izango, espazioak horretara bultzatzen dituzenez, jada elkarrekin erlazionatzen baitira; ez lukete soiltasuna, malgutasuna edota gardentasuna bezalako kontzeptuak esplikatzeko premiarik ere izango, arkitekturak berak transmitituko bailituzke kontzeptuok.

Haurrak etengabeko elkarrizketan aritzen dira arkitekturak eskaintzen dituen espazioekin; haurra bera ere espazioa baita, eta haurrak ere jaiotzen denetik inguruak eskaintzen dizkion aukerak arakatzen baititu gorputzaren bidez. Hoyuelosen arabera, haurrak arkitekturak eskaintzen dizkion gainazalak islatzaileak —ispiluak, adibidez— erabiltzen ditu bere burua eza-



gutzeko, eta txiki txikitatik arkitektura horren baitan besteekin harremanean egon nahi du; “haurrek euren espazioak eraikitzen dituzte, eskuekin arkitekturak eskaintzen dizkien forma, material eta eiteak ukituz ingurunea arakatzen dute, sortzeko, berregiteko eta deseraikitzeko; gardentasunak baliatzen dituzte beste toki batzuetan gertatzen ari dena behatzeko eta eza-gutzeko, eta begiratokiak inprobisatzen dituzte perspektiba diferenteetatik errealtatea ikusteko”. Ondorioz, Hoyuelosek uste du eskoletako arkitektura egiten ezin dela jarraitu haurrek uneoro ematen dituzten ideiei muzin eginez: “Zergatik ez arriskatu apur bat gehiago eta arkitektura ludikoagoa egin haurrentzako?” Era berean, eskolak diseinatzerako orduan arkitektoen eta pedagogoen artean elkarrizketa handiagoa beharko litzatekeela iritzen du. Osmosiari, hau da, barrualdearen eta kanpoaldean arteko loturari, behar besteko garrantzirik ez ematea ere kritikatzeko du. Barneko es-

pazioak asko zaintzen diren arren, kanpokoekin kontrakoa gertatzen dela pentsatzen baitu. Dikotomia horren atzean hierarkizazioaren kultura da goela dio; garrantzitsuena —benetako ikaskuntza— barruan gertatzen baita eta kanpokoaren denbora-pasa baita.

Espazioaren esperientzia bizipen existentziala da eta guztiok esperientzatzen dugu lehen haurtzarotik, jaiotzen garenetik eta, akaso, lehenagotik. Hortaz, Eslavak azaldu bezala, eskolen arkitekturak badu eragina heziketan: “Eskola emozioetatik proiektatu behar dugu, izan dadila nahi kolektiboaren ispilu. Eskolak babesgune ere izan behar du, baita barruko espazioaren eta kanpokoaren arteko zubi ere. Eskolak esperientzia ekologikoari bidea ireki behar dio eta bertakoarekin, lokalarekin lotura egiteko balio behar du. Eskolaren arkitekturak malgutasunez jokatu behar du eta haurrari espazioaren esperientzia estetiko biziitzeko aukera ere eman behar dio”.

Finlandiako hezkuntza-sistemak

Finlandiako eskolek herrixken tankera dute

dituen helburu berberak erdietsi nahi dira hango eskolen arkitekturaren bidez ere; hala nola, pertsonen osasun fisikoa, mentala eta soziala bermatzea; berdintasuna bultzatzea edota gutzientzako balioko duen eskola eraikitzea. Horrexegatik, eskolako espazioek era bateko zein besteko erabiltzaileentzat balio beharko lukete eta haur bakoitzak bere garapen-ziklo ezberdinetan izan ditzakeen premiei erantzun beharko lieke. Eskolak ziurtatu behar du ikasleen eguneroko jarduna esanguratsua, osasuntsua eta segurua dela euren garapen eta ongizaterako. Arkitekturaren bidez, ordea, nola sustatzen dituzte Finlandian balio horiek? Espazioen diseinu eta egiturak lagun ote dezakete hezkuntza-sistemak dituen helburu horiek betetzen?

Galdera horiei erantzuteko hainbat gako ematen dira Oteiza Museoa inauguratu berri duten "The Best School in the World. Eskola Arkitektura Finlandian" erakusketan. 2000 eta 2010 urteen artean Finlandian eraikitako zazpi eskola eredugarri erakusten dira bertan. Zein dira, baina, zentro horiek bikaintasun pedagogikoa lortzeko jarraitu dituzten irizpideak? Nolako ezaugarriak dituzte hezkuntza-emaitzei dagokienez, halako arrakasta lortu duten eskola horiek?

Herri txikien antza dute Finlandiako eskolek. Era guztietako jarduerak egiteko espazio ugari dituzte: talde-lanean aritzeko areto handiak, bakarkako lanerako gela txikiak, tailerrak, beste ikasleekin nahiz profesionalekin erlazionatzeko pasabide eta plazak, egongelak, jantokiak, kirol-eremuak... Eskolen egitura fisiko horren

bidez Finlandiako gizartean hain errota dauden hainbat balio sustatzea dute xede: inklusioa, kulturartekotasuna, berdintasuna, malgutasuna, gardentasuna... Erakusketaren komisario Javier Torresek dioenez, arkitekturaren bidez ere balio horiek landu baitaitezke: "Azalaren, proportzioen, konpartimentazioen, bolumenen, koloreen, testuren, altzarien, materialen... bitartez imajinatzen duguna baino balio pedagogiko gehiago transmititzen dira".

Finlandian hezkuntzari ematen zaion garrantziaren isla da heziketazentroyen arkitektura eta diseinua. Bigarren Mundu Gerraz geroztik herrialdearen garapenerako giltzarri izan da hezkuntza, eta nagusiki, 70eko hezkuntza-erreformaren ondotik joan da egikaritzuz aldatuta eta garapen hori. Aurrez, forma hierarkizatuan eta ikasgela estandarizatuetan irakasten zen Finlandian ere. Ikasleak idazmahaien atzean jesarrita, banaka eta errenkan, arbelera begira egon ohi ziren. Gelako

atea itxita, bertako jarduna irakaslearen domeinupean egoten zen, eta hark oholtzatik ikasleek bizitzan aurrera egiteko behar zituzten irakaspenak ematen zizkien. Eskola haiek bulegoen, fabriken edota ospitaleen antza zuten. Azken urteetan, baina, irakaslearen zentratutako irakaskuntzatik, erdigunearan haurra duen irakaskuntzara igaro dira Finlandian, eta horrek arkitekturan ere eragina izan du.

Komunitatera irekita daude Finlandiako eskolak. Ez dituzte ikasleek soilik erabiltzen, baizik eta herritar guztiei begira eraiki dira. Izan ere, eskola ez ezik, gizarte-zentro ere badira eraikuntza horiek, eta eskola orduetatik kanpo beste hamaika funtzionarako erabili ohi dira; hala nola, haurrak zaintzeko, familiak elkartzeko, gaueko eskolak emateko, kontzertuak egiteko, jarduera kulturalak antolatzeko, aisialdiko ekintzetarako... Hiritar guztien zerbitzura dauden zentroak dira eta Finlandiako eremu askotan herriko eraikuntza publiko bakarrak. Horre-



Finlandiako Sipoo hiriko Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako zentroa.

arkitekturak pedagogian duen eragina

xegatik, orain dela bizpahiru hamarralditik honantz, eskolen diseinua eta egituraketa erabakitzeko orduan ez dute arkitektoek soilik parte hartzen, baita irakasle, ikasle, guraso, bestelako profesional eta herritarrek ere. Eskolaren irekitasunaren ispilu da hango hezkuntza-zentroek itxiturarik ez izatea. Kanpoaldean ataria izan ohi dute eta berau ingurunearekin —herriarekin, auzoarekin, basoarekin, parkearekin...— harmonian egon ohi da. “Finlandiarrentzat eskola funtsezko pieza da komunitateari begira, ez da heziketarako pieza klabea soilik, baizik eta gizartean egituraketa eta kohezioan ere funtsezko rola jokatzeko du”, argitzen du Torresek.

Finlandiako eskoletan ohikoa da erabilera anitzeko areto handiak erakitzea. Elkartzeko toki publikoak izan ohi dira. Ereku horiek pertsonen arteko interakzioa sustatzen dute eta hori kontzienteki erabilitako estrategia da. Espazio komunak edukitzeak sozialki batasuna ematen dio eskolari, era guztietako pertsonen arteko —gazteak, zaharrak, ikasleak, gurasoak, emakumeak, gizonak...— elkarriketa bultzatzen du, eta gune horren erabilzailerik komunitate bateko kide izatearen sententzia ematen die. Areto horiek talde-lanerako edota tailerretarako ez ezik, eskola-orduek kanpo ere, beste hamaika jardueretarako erabiltzen dira: hitzaldiak, kontzertuak, elkarretaratzeak... Finlandian argi baitute ikaskuntza ez dela soilik gela jakin batzuetan ematen, baita jangeletan, kirol-guneetan, patioan edota auditorioan ere; eta ez dela irakasleekin soilik ikasten, baita norbere gela eta adinekoak ez diren beste ikasleekin nahiz zentroko gainontzeko langileekin edota beste herritarrekin ere.



Areto eta pasabide espaziotsekin batera, ondo diseinatutako eskola batek txoko pribatuak ere izan behar lituzke, Finlandiako hezkuntza-sistemaren arabera. Bertan ikasleek euren kasa jarduteko aukera dute, helduen ikuskapen beharrik gabe. Pertsonak isiltasunean aritzeko parada izango duten eremuak beharrezkotzat jotzen ditu Finlandiako hezkuntzak. Taldean aritzeariez ezik, garrantzia ematen baitiote txikitatik, nor bere buruaren arduratu eta bakoitza bere kasa aritzeko gaitasunari ere. Hala, espazio txiki horiek kontzentratzeko, analiserako, ikaskuntza autonomorako, hausnarketarako, erlaxatzeko... aukera ematen diete ikasleei.

Garapen jasangarriari ere begiratzen dio Finlandiako arkitekturak. 2000. urteaz geroztik eraikitako eskolen helburu nagusietako bat iraunkortasuna da, hau da, ez daitezela egun batetik bestera hondatu edota zaharkituta geratu. Erakusketan ageri diren zazpi eraikuntzak mantentzeko eta konpontzeko errazak eta merkeak dira. Malgutasuna kontzeptua ere behin eta berriz errepikatzen da Finlandiako arkitekturaren. Erabilera anitzeko espazioei ez ezik, etorkizuneko beharrik aurreikusteko gauza izateari eta unean uneko premietara egokitzeko gaitasu-

nari ere egiten die erreferentzia kontzeptu horrek.

Ez dago gomendio unibertsalik eskolaren tamaina zehazten duenik. Eskola batera ehunka ikasle badoaz, bloke txikiagoetan banatzen dute eraikina. Hala, irakasle bakoitzak berari dagokion blokeko ikasle guztiak ezagutu ahalko ditu, eta ikaslerik gazteenek ere, orientatzeko zailtasunik gabe, euren bidea aurkitzeko modua izango dute. Ildo berean, Finlandiako eskoletan ez daukate egituraketa edota altzari estandarizaturik ere. Zentro bakoitzak autonomia du bere hezkuntza-proiekturako egokienak diren bitartekoak erabiltzeko.

Finlandiak kalitate handiko arkitektura-tradizioa du, Torresek adierazi bezala, eta horri ere zor zaio eskolen diseinuaren arrakasta. Kurioski, arkitektura japoniarrak eragin handia izan du eurengan: “Espazio malguak izan ohi dira, balioa handia ematen diete ondo diseinatutako objektuei, espazio hutsei, espazioen jarraitutasunari edota itzalei. Hemen baino eskuzabalatasun handiagoarekin aukeratzen dituzte eraikinen kokalekuak, eraikuntzaren eta bere ingurunearen arteko elkarriketa oso garrantzitsutzat jotzen dute, eta kanpoko espazioak asko erabiltzen dituzte”.

Berdintasuna eta kalitatea, zutabe

PISAko emaitzek finlandiarrek bazekitena jakinarazi zieten besteei: munduko hezkuntza-sistemarik onenetakoa duela herrialde eskandinaviarrak. PISAko emaitza bikainak, gainera, ekitatiboak dira, ikasle gehienek lortzen dituzte goi mailako puntuazioak, eta oso ikasle gutxik emaitza kaxkarrak. Berdintasuna eta kalitatea dira, bada, hezkuntza sistemaren oinarriak. Eta hezkuntza-sistema herrialdearen ongizatearen eta garapenaren oinarri.

Ez ditu ehun urte Finlandiak. Eta ia 40 urteko sendotasuna du hango hezkuntza-sistemak. 1917an, Errusian iraultza egin zutela baliatuz, independentzia aldarrikatu zuen Finlandiak edo Suomiko Errepublikak, Suediaren menpe ia 700 urte bizi izan ondoren. Europako herrialde handienetakoa da azalera, baina txikienetako dentsitatez. Herrialdean zatirik handienez suomieraz hitz egiten da, eta iparraldean laponieraz.

Sendoa da Finlandiako hezkuntza-sistema. Irakasleriak, herritarrek, komunikabideek eta politikariek babesten dute hezkuntza-sistema. 1978an erreforma sakona egin zen eta ordudunik, boterean aldatetak egon diren arren, politikariek adostasunari eutsi diote gaurdaino. Egonkortasun horren ardatzetako bat udalek duten esku hartzea da; erabakiak hartzeko eta baliabideak kudeatzeko eskumen handia dute udalek. Horrez gain, Hezkuntza Kontseilu Nazionala eta Hezkuntza Ministerioa arduratzen dira sistemaren antolaketaz. Beti ere, eskolen autonomia zainduz: ikastetxeek egitasmo pedagogikoan eta curriculum

planteamenduan autonomia handia dute.

Gako ugari ditu Finlandiako hezkuntza-sistemaren bikaintasunak, baina gako nagusietako bat sistemaren ezaugarri guztien elkarrekotasuna da. Eskolen arkitektura da hezkuntza-bikaintasunaren ezaugarrietako bat ikusi den bezala, baina horrekin batera, administrazio-antolaketa malgua, tokiko erakundeen indar eta esku hartzea, komunitatearen presentzia, ikasleen aniztasuna zaintzea, inklusioa, aukera berdintasuna, doakotasuna, metodologia, ebaluazioa, ikasleak duen protagonismoa, ardurua, autonomia... ezaugarri horiek guztiak elkarreaginean garatzen dira Finlandiako eskoletan.

Irakasleriak gidatzen du, komunitatearekin batera eskola, nahiz eta familiek euren gain hartzen duten seme-alaben heziketaren ardurua nagusia. Zuzendariari dagokio ikastetxearen kudeaketaren erantzukizun handiena, eta berau udalak hautatzen du. Hautaketa horretan zuzendari-gaiaren profila, lanbide ibilbidea, zuzendaritza-plana eta gaitasun pertsonalak balioesten dira. Zuzendariak aukeratzen du bere lan taldea garatu nahi duen eskola-proiektuaren arabera, eta irakasle gehienak finkoak eta iraunkorak dira.

Komunitatearen presentzia ere garrantzitsua da Finlandiako eskoletan. Bai fisikoki —eskolak herritar guztiei irekitzen baitizkie ateak— baina baita erabakimenean ere, gurasoek ohitura handia baitute udaletako hezkuntza-batzordeetan parte hartzeko, baina

baita euren seme-alaben prozesuaren jarraipen zuzena egitekoa ere, eta besteak, ebaluazioan parte hartuz, familiek eta irakasleek elkarrekin hausnartzen baitute ikasleen ikaste-prozesuaren inguruan. Haurren autoebaluazioak ere garrantzia handia du, norik bere prozesuaren indarguneak eta ahulgu-neak ezagutzeko lana hartzen dute. Azken batean, hasieratik bukaera arte, haurra da bere ikasketa-prozesuko protagonista. Haatik, ikastetxeek ez dute kanpoko ikuskaritzen ebaluaziorik —soilik DBH amaitzean nazio mailako azterketa dute—, eta erreplikapenak saihesteko lan handia egiten dute eskolek. Finlandiako hezkuntzaren ezaugarrietako bat ikasle bakoitzaren prozesua jarraitzea denez, beharrak edo arazoak dituen ikaslea garaiz eta ondo ezagutzeko, eta beharrezko duen laguntza ematea lehenesten baitute.

Eskolatik kanpoko egitura eta ohi-turek ere laguntzen diote hezkuntza-sistemari. Familiek irakurtzeko eta liburutegietara joateko duten ohitura handia lagungarri da, baina baita irakasleen prestigio soziala ere, neurri handi batean haien prestakuntza handiarekin lotua dagoena (urtero 4.000-6.000 ikasle eskatzen dute Irakasle Eskolan sartzea, baina 700-800 besterik ez dira onartzen bost urteko unibertsitate-ikasketa horiek egiteko). Finlandiako sistemaren arabera, irakasle onenak lehen etapetan kokatu behar dira, ikaskuntzako lehen urteak garai erabakigarri eta garrantzitsutzat hartzen baitira. Era beran, irakasleek gurasoen eta komunitatearen babesa jasotzen dute.

anna tardos



ELKARRIZKETA

Hungariako Pikler-Loczy institutuko zuzendaria

“Hezkuntza ez da predikatzea; jarrera gizatiar bat da, gauzak nola egin, nola esan, pertsonak nola tratatu... hori guztia zaintzea da hezkuntza”

Emmi Pikler pediatra eta pedagogoak (1902-1984) hamarkada luzetan Budapesteko Loczy institutuan egindako lanari jarraipena eman dio Anna Tardos haren alaba eta Haur Psikologian doktoreak. *hik hasi-k* Budapesten elkarrizketatu du, garai batean umezurtz-etxea izan zen eta gaur egun haur-eskola den eraikinean bertan. Emmi Piklerren lanaz, harek garatutako pedagogiaren oinarriaz eta oro har hezkuntzaz aritu da. Timea Juhaszek egin ditu hungarieratik itzulpen-lanak.



70 urte baino gehiago igaro dira Emmi Piklerrek bere pedagogiaren oinarriak ezarri zituenetik. Haurrak haur izaten jarraitzen du eta haurraren beharrak aldatu ez diren neurrian esan liteke Pikler Pedagogiaren oinarria mantentzen duzuela?

Emmi Piklerrek, pediatra bezala, familiarekin egiten zuen lana, familiako pediatra zen, eta lan horretan zihar-duela garatu zuen haurrarekiko erabateko ikuspegi berri bat, alde batetik haurrari askatasun handiagoa ematean oinarritzen dena, eta bestetik, haurra arreta eta kontu handiagoz zaintzean.

Pasadizo bat kontatuko dut: Budapesten pediatra lanak egin aurretik Triesten bizi izan zen senarrarekin eta alabarekin, eta sarri joaten ziren hondartzara. Behin hondartza batean gertatu zenak bere bizitzan ikaragarriko eragina izango zuen: Gurasoak seme-alabez nola arduratzen ziren interesatzen zitzaion eta haurrek nola jokatzeko zuten eta gurasoek haiekin nola jokatzeko zuten behatzen zuten sarri. Gurasoek maitasun ikaragarri jokatzeko zutela ikusten zuten hondartzan, orgatxotik atera, toallan utzi eta jolastu egiten ziren haurrekin. Baina nola jolasten ziren? Eseri egiten zituzten, zutik jartzen zituzten, eskutik eramaten zituzten... Emmi Pikler ohartu zen gurasoek maitasun handiz jokatzeko zutela seme-alabekin, baina beti haurrek egin ezin zuten hori eginez zieten zietela ere ikusi zuen. Maitasun harremanaren atzean, konfiantza fal-

ta, presa zegoela ikusi zuen; gurasoek fede gutxi zutela haurraren berezko gaitasunetan. Eta haurrari ez zitzaiola beste erremediorik gelditzen eta egokitu egiten zela gurasoen nahietara. Behaketa hartan ez zuen soilik gurasoen jarreraren atzean zegoen ezinegona ikusi —zeinak haurraren dependentzia bultzatzen duen, ezin baitu helduak ezarri duen postura hori deseraiki-, baizik eta ohartu zen haurra beste modu batean tratatuz gero, haurra bera ezberdina izango litzatekeela Emmi Piklerrek haur autonomoaren irudia zeukan, bere kabuz ekiteko eta garatzeko gai den haurbaten ikuspegi zuzena. Eta hori da Pikler Haur Pedagogia deitzen diogunaren oinarria.

Hala ere, haurra inguratzen duen guztia asko aldatu da. Piklerren pedagogiatik zer mantentzen da eta zer aldatu beharra izan duzue garai berrietara egokitzeko?

Pikler Pedagogia garatuz doan pedagogia bat da. Budapesten pediatra gisa lan egin zuen 10 urtez 1930eko hamarkadan hasita. Lan horretan ez zen soilik haur gaixoak sendatzeaz edo gaixotasunak saihesteaz arduratzen. Familiak beregan, pediatra bezala, zer nolako laguntza bilatzen zuten ikusten joan zen, haurrarekiko harremana atsegina eta baketsua izan zedin, bi aldetatik, nola haurarentzat hala helduentzat. Orduan idatzi zuen lehen liburua, gurasoei zuzendua: *“Zer daki dagoeneko haurrak?”* izeneko; komatxo artean jarri zuen izenburua, hori baita sarri gurasoek beste guraso batzuei galdetzen dietena, eta Emmi Piklerren arabera, galdetu behar ez luketena. Haurrak ez dira karrerretako zaldi, eta garrantzitsua ez da zeinen azkar ikasten duen hau edo hori egiten, baizik eta nola ikasten duen. Liburu horretan Emmi Piklerrek hainbat aholku ematen ditu haur txikiarekin bizitzako aberats eta alferreko gatazka gabea bizi ahal izateko. Haur txikiarekin elkarbizitzak ga-

“ Emmi Piklerrek argi erakutsi zuen garapen mantso batek ez duela esan nahi garapen ez sanoa; bi haurren artean urte erditik gorako aldea egon liteke eserita jartzetik zutik jartzerako urratsa emateko

”
“ 0-3 haur-eskola ez da haurrak berez joateko beharra duen leku bat, baina garai honetan gauzak ondo egiteak ikaragarri lagun diezaioke haur horri ”

tazka asko baitakartza, eta ez baita komeni alferreko gatazkarik sortzea, loarekin, janarekin edo arauekin, adibidez.

1946an umezurtegia sortu zuen Loczy kalean. Familiekin izan zuen esperientzian oinarriturik, umezurtegiako haurrei halako bizitza baketsu bat eskaini nahi zien. Baina umezurtegia ingurune artifizial bat da, eta oso erraza da bertan haurra kaltetzea, ospitalizazio baten sintomek nortasun guztia suntsi baitezakete. Berak eza gutzen zituen umezurtegiaren arriskuak, bazekin umezurte- etxe bat ez dela sekula familia bat bezain ona izango, baina bazekien haurrari buruzzekienak eta haurrari behar zuena eskaintzeak umezurtegiako haurrei ere lagunduko ziela.

Une horretan bertan, Piklerren pedagogia aldatu egin zen, egokitu eta aberastu egin baitzen umezurtegiaren lan egitean. Ordura arte, pediatra bezala, familiekin egiten zuen lana, baina umezurtegiaren ez dago gurasorik, gurasoek ez dute umea nahi. Maitasuna ere ezberdina da umezurte- etxean. Haur orokor batekiko maitasuna da, eta gainera, aldi berean, ume askoz arduratu behar du helduak. Une horretan bere pedagogia egokitu beharra izan zuen, zaintzaile gisa hartu zituen emakume gazteak haurraren modu abegikor eta arretatsuan zuzentzeko sistema bat sortu beharra izan zuen. Nola forma daitezke zaintzaileak amaren maitasunik gabe zaindu ditzaten umeak? Aditu talde zabal batek egin zuen lan Emmi Piklerrekin eta Pikler Pedagogian hainbat aldaketa egin ziren. Adibidez, heldua haurraren gertaerak gerturatzeko eta txikia besotan hartzeko koreografia oso zehatz bat garatu zuten. Zaintzaileei ez zien esan, “ez tematu janarekin, ez iezaiozue haurrari janarazi ez badu jateko gogorik...”. Baizik eta haurra nola hartu erakutsi zien, ez eserita eta ez etzanik; koilara berehala ahoan ez sartzeko eskatu zien, baizik eta altxa-

tu, haurrari erakutsi eta hark ahoa irekiz gero gerturatzeko koilara. Horrez gain, erakutsi zien haurrak hasieran ez dakiela koilara zurruputzen, ezta jana ahoan gelditu eta koilara ahotik ateratzen ere... Zaintzaileek hamaika laguntza zehatz jaso zituzten, haurra jarrera abegikor eta baketsu batean tratatzeak zer esan nahi duen azaltzeko. Lan horrekin guztiarekin pedagogia asko aberastu zen, eta baita umezurtegiako bizitza ere.

Orain artxiboetan lan egiten ari direnak umezurte- etxean sortu zituzten koreografiak aztertzen ari dira, ikusten ari dira nola garatu zituzten bakoitzak bere jostailuak edukitzearen prozesua, mahaian jaten hastearena, paseoan irteten nola hasi ziren, urtebetetzeak ospatzeko koreografiak nola garatu zituzten, hau guztia berria bitzen umezurtegiaren.

Umezurtegiak 65 urtez funtzionatu zuen eta aldi-aldi pedagogia garatuz, eta aberastuz joan da elkarrekintza berriekin. Baina oinarriak berdinak dira, eta oso ondo zehaztuak dira Myriam David eta Genevieve Appellen *Lóczy ou le maternelle insolite* liburuan: aktibitate autonomoarentzat espazio egoki bat eskaintzea; helduarekiko harreman seguru bat eskaintzea haurrari; umea pertsona positibo bat bezala hartzea eta bere gaitasunak garatzen laguntzea; errespetuz tratatzea, eta osasuna zaintzea. Haurraren osasuna zaintzeak, besteak beste, kanpoan denbora ematea esan nahi du, aire librean lo egitea, eta ondo elikatzea —behartu gabe—. Pedagogia moldatzen joan da, oinarriak mantenduz, baina detailak osatuz eta zehaztuz, materialen inguruan, adibidez, jostailuak, gauzak... egokituz joan dira.

Behaketa izan zuen Emmi Piklerrek pedagogia sortzeko oinarri. Zuentzat zer garrantzia du behaketak?

Umezurtegiaren etengabeko behaketa-lana egiten zuten. Behaketa

horien gainean egindako ikerketa garrantzitsu bat haurren garapen motorren faseei buruzkoa izan zen, ingelesera, alemanera, frantsesera, gaztelaniara itzuliriko liburu batean jasozuena. Emmi Pikler eta bere taldea ohartu zen haurra ez dela etzanda egotetik eserita egotera igarotzen, baizik eta bitarte horretan beste hainbat fase igarotzen dituela. Pixkanakako zutitze hori, bi oinen gainean jarri bitarteko garapen hau, oreka seguruan oinarritzen da, faserik fase haurrak oreka bilatzen baitu. Haurrak, horretarako askatasuna izanez gero, ikasketa-prozesu oso interesgarria aukeratzen du: bizkarraren gainean etzanda dagoela posturaz aldatzen hasten da, triparen gainean jartzen, lau oinean ibiltzen, eta soilik gero hasten da oinez. Haatik, bitarteko mugimendu hauek guztiak ez dira agerik eskuliburuetan; etzanda, eserita eta zutitik jartzen direla diote. Piklerrek argi erakutsi zuen 700dik gora haurretan oinarrituriko behaketaren eta ikerketaren bidez garapen mantso batek ez duela esan nahi garapen ez sanoa; bi haurren artean urte erditik gorako aldean egon liteke eserita jartzetik zutik jartzerako urratsa emateko, eta hori guztia bai, behaketari eta ikerketari esker ondorioztatu zuen.

Duela sei urte aldaketa garrantzitsu bat jasan zuen leku honek: umezurztegia izateari utzi eta haur-eskola bilakatu zen. Nolakoa izan da aldaketa?

Europar nagusi diren ideien arabera, umezurztegi batek ezin du ona izan, umezurtez-etea arriskutsua da eta oso zaila da ume abandonatuen etxe bat ona izatea. Errekonozimendu profesionala eskatzen duen lan bat da, oso serioa, eta oso gogorra. Landare bat basotik hartu, sustraietatik atera eta plastikozko poltsa batean sartu ostean etxean berriro landatzea bezala da, basoko familiarik eta ingurunerik gabe. Landare horrek bizirik jarrai dezan nahi badut, are gehiago,



loratzea nahi badut, guztia jakin behar dut landare horri buruz, nolako lurra behar duen, zenbatur, zenbat argi. Hori da umezurztegi bateko profesionalen lana. Baina Umezurtz-etea itxi beharra izan genuen duela sei urte, ez baitzegoen aski ume. Eta haur-eskola bat ireki genuen. Lehenengo 0-3ko talde batekin hasi ginen, gero birekin eta gaur egun hiru talde dautu.

Haur-eskola sortu genuenean pentsatu genuen egiten bagenekien zerbait zela, bai baitakigu guraso ez den heldu batek nola artatu behar duen haur bat; askatasuna eman behar diola, badakigu biolentziarik gabe hezten, eta badakigu haurrak taldean nola hezi eta horrek zer esan nahi duen ere. Uste genuen are errazagoa izango zela lan berria, haur hauek sanoak baitira, eta etxean gurasoen maitasuna jasotzen baitute. Orduan ohartu ginen asko genekielan, bai, umezurtegiako esperientzia handia zela, Pikler Pedagogiaren jakinduria oso lagungarri zela, baina ohartu ginen hau lan berri bat zela. Haurrak apur bat diferenteak dira.

Zein da umezurtegiaren eta haur-

eskolan lan egitearen arteko diferentzia handiena?

Haur hauek gurasoak dituzte, familiak; etxea dute. Goizero gurasoei aguresan behar diete, eta, lehen, figura hori ez zegoen. Ez ditugu soilik haurrak onartzen, baita euren familiak ere. Eta horrek egoera eta arazo berriak dakartza, familia bakoitzak bere ohiturak baititu. Adibidez, guk hemensekula jantziko ez genizkiekeen arropak daramatzate hurrek; jateko ohiturak oso desberdinak dira, ama batzuk koilararekin atzetik ibiltzen dira, eta beste batzuek beldurra diote jaten emateari; haur batzuek beldurra diote pixoihal aldaketari... Etxean maitasuna jasotzen duten haurrak dira, baina gure pedagogiarekin talka egiten duten ohiturak dakartzate, eta erabaki behar dugu zein ohitura onartzen ditugun eta zeintzuk ez.

Umezurtegiaren belaunaldi belaunaldi hazten joan zen profesional taldea izan zen haur-eskola martxan jarri zuena, eta oso arrotza egin zitzaien, adibidez, haurrak ez bainatzea, hura baitzen umezurtez-etekeko unerik intimoena, haurra bainatu eta oheratzeko unea.

“**Sekula ez diegu gurasoei esaten “hau egizu” eta “beste hori ez”, “ez ezazu eskuetatik heldurik ibilarazi”; hemen zer eta nola egiten dugun ikusten dute, esperientzia hori bizi dute**”

“**Pikler Pedagogia ez dator bat mundu guztiaren nortasunarekin. Gainjartzea gustatzen zaionari edo irakastea gustatzen zaionari oso zail egiten zaio jarrera hori alde batera uztea.**”

Dena den, 0-3 haur-eskola ez da haurrak berez joateko beharra duen leku bat. Ez da haurraren berezko behar bat, baina ezin dugu esan, era berean, hobe edo okerragoa den. Lehendik ere, etapa goiztiar horretan zailtasun asko bizi dituzte haurrek. Baina zera esan dezakegu, garai honetan gauzak ondo egiteak ikaragarri lagun diezaioke haur horri. Eta hori da hemen landu duguna, haurrak garatzeko behar duen sostengu-laguntza.

Zer nolako presentzia dute familiek Pikler-Loczy haur-eskolan?

Umezurtz-etxean ere ahalik eta gehien errespetatzen ziren gurasoak. Baina umezurtegiaren haur haien bizitzako heldu garrantzitsua zaintzailea zen. Hura zen haurrek gehien maite zuten pertsona, zeren ama, etortzen bazen, noizbehinka etortzen zen, eta bisitan soilik. Haur-eskolan ere zaintzaile-erreferentea dute haurrek, hau da, hemen dauden hiru urteetan pertsona berdina da beraien arduraren izango duena. Baina umezurtegiaren zaintzaile-erreferenteak haurraren arduraren osoa zuen. Umezurtegiaren hazi ziren haurrak orain etortzen direnean ondo gogoan dute zein zen euren zaintzailea.

Gurasoekin elkarlanean jarduten gara; goizetan eskolan sartzeak zer esan nahi duen, haurrak eta familiak hartzeak zer esan nahi duen... eta oso kontuan izaten dugu, baita ere, arratsaldeetako itzulera.

Zein da haur-eskolako hezitzaileak haurren bizian duen lekua?

Ez du amarekin lehiatzen. Nahiz eta orain dauden haurrek ere asko maite dituzten euren zaintzaileak, ezin da amarekiko edo aitarekiko duten maitasunarekin konparatu, ezta gurasoek euren bizitzetan duten lekuarekin ere. Ikuspegi berri bat bilatu beharra izan dugu: nola garatu sostengu-harreman lagungarri bat, konfiantzazkoa, gurasoen harremana

osatuko duena, batuko zaiona eta lehiakide izango ez duena? Hamaika galdera erantzun behar izan ditugu eta beste hamaika gelditzen zaizkigu oraindik erantzuteke.

Umezurtegiaren haur gutxiago zeuden taldeetan, haur eskolako ratioak handiagoak dira, eta gainera, haur batzuk ez dira egunero etortzen. Egokia litzateke taldeko 9-10 haur izatea, baina 12ko ratioa dugu. 12 haurrekin, legez, bi zaintzaile egon behar dute, hori dio Hungariako legeak 0-3 zentroi buruz. Egoera horretan, nola banatu lana bi helduren artean 12 haurreko talde batean? Nola egin heldu bat arduraduna izan dadin... hori guztia aztertzen ari gara.

Baina haur-eskolako eta umezurtegi baldintzak ezberdinak izan arren, oinarriko printzipioak ez dira aldatzen. Ez dugu haurraren ekintza autonomoan esku hartzen, bere mugimendu librea baimentzen dugu. Zainketa-uneetan zaintzaileak jarrera erabat arretatsua du, haurra zutik jar daiteke, mugi daiteke... eta komunikazio garrantzitsua dago une horietan. Hemen ematen diegun heziketa, hezkuntza, baketsua da, biontzia gabea, abegikorra eta errespetuzkoa. Oinarriak berdinak dira. Are gehiago esango dizut: zientzia demostratzen hasi da Emmi Piklerrek arrazoi zuela, haurra jaiotzen denetik pertsona bat dela, nortasuna duela, arreta duela, eta heltzen zaion informazio guztiatik aukeratu egiten duela; zientzia gerturatzen ari da printzipio horietara.

Emmi Piklerrek umezurtegiaren egin zuen lana, beraz, ez zituen gurasoekiko harremanak landu. Nola garatu dituzue harreman horiek?

Magda Gerber Emmi Piklerrek ikasle eta ondoren kidea izan zen, eta Emmi Piklerrek hemen umezurtegiaren zeraman bitartean Magda Gerberrek gurasoekiko harremanak landu zituen Los Angelesen eta Emmi Pikle-



rrren babesa zuen. Gurasoek eta haurrek parte hartzen zuten taldeak zituen Gerberrek, gurasoak astean behin etortzen ziren. Piklerren pedagogian oinarriturik garatu zituen gurasoekiko harremanak eta ondoren mundu osoan zehar zabaldu izan da eredu hori, bereziki Amerikako Estatu Batuetan eta Alemanian. Alemaniako taldeak bertan parte hartzeko eskatu zigun, eta pentsatu genuen garaia zela geuk ere gisa horretako taldeak sortzeko hemen. Astean ordu eta erdiz etortzen dira gurasoak, eta euren seme-alabak nola jolasten diren eta nola harremantzen diren bizi dute. Haurren arteko gatazkak nola bideratzen dituzten ikusten dute, pedagogoen jarrera nolakoa den, nola artatzen dituen haurrak, zein tonutan zuzentzen zaien... gurasoei sostengu gisa eskaintzen zaie denbora-espazio hori. Sekula ez diegu gurasoei esaten “hau egizu” eta “beste hori ez”, “ez ezazu eskuetatik heldurik ibilarazi” edo... ez dugu sekula zer egin behar

duten esaten; baizik eta hemen zer eta nola egiten dugun ikusten dute, esperientzia hori bizi dute. Horrez gain, gurasoek soilik parte hartzen duten taldeak daude, euren galderak egiteko espazioa izan dezaten.

Eraikin honetan haur-eskola sortu aurretik guraso-talde horiek eska eta eska ari ziren 0-3 zentro bat sortzeko, eta haur-eskolaren ideiarekin abiapuntua hor ere badago.

Zein da eskolaren egoera gaur egun?

Institutua dagoeneko ez dago. Eraikin hau eta lorategia estatuarenak dira. Urtebete luzez pentsatzen genuen eraikina utzi beharko genuela. 2011ko apirilaren 15ean gurearen gisako fundazio guztiak —estuarengandik dirua jasotzen dutenak— desagiteko dekretu bat atera zuen estatuak, eta uste genuen desagertuko zela. Orduan umezurtz-etxea itxi zuten baina eskola ez. Amek lan egiteko eskubidea dute eta hori babesteko haur eskolak behar direnez eutsi ahal izan

genion gureari. Horregatik gaur egun hau estatuaren eskola bat da, baina gure profesionalak eta gure pedagogia umezurtzegikoak dira.

Eskolaz gain eraikin honek bi erakunde zibil hartzen ditu, Hungariako Pikler-Loczy elkarte eta Loczy Haurren Fundazioa.

Baina gaur-gaurkoz ez daukagu hemen jarraitzeko bermerik. Pedagogikoki etorkizuna ikaragarria da. Esan behar dut eskola honetako talde pedagogikoa ikaragarria dela. Zaintzaileek nola lan egiten duten ikusten dudanean, zeinen jakintsuak diren, nola hazten diren, nola bihurtzen diren konpetente... ikaragarria da. Baina ez dakigu noiz arte egin ahal izango duten hemen lan.

Eta Pikler Pedagogiak zer-nolako osasuna du Hungarian?

Hungariako haur-eskoletan zainketaren kalitateari garrantzia handia emateko tradizioa dago, pixoihalak aldatzeko unea, janariarena... zainketak garrantzia handia du. Baita ekin-

“Gurasoak oso guraso onak izango dira seme-alabak eskutik helduta zutik jartzen badituzte ere. Kontua da, guk uste dugula haurraren garapena aberatsagoa izango dela askatasun handiagoa baldin badu

”

“Hau ez da metodo bat. Ez, hau laguntza bat da, haurra egoki gara dadin laguntzen dion pedagogia bat, bereziki familiako sostengua ahula duten haurren kasuan

”

tza autonomoak ere. Baina, era berean, Mendebaldetik datorren hori guztia berehalajartzen da modan. Alemanian, Espainian, Latinoamerikan eta beste hainbat lekutan Pikler Pedagogia berrikuntza garrantzitsutzat hartzen den aldi berean, hemen bertan zaharkitua iruditzen zaie. Hungarian, garai batean, 0-3rako curriculum bat sortu zuten, hilabetez hilabete hilabete zer landu behar zen zehazten zuen curriculumak, hilabete batez bainua, jaten ikastea... Gu curriculum horren kontra geunden, noski. Ez zen erraza izan, baina azkenen atzera bota zen. Hori da dagoena.

Egia da, baita ere, gaizki-ulertze asko gertatzen direla. Pikler Pedagogiak haurren ekintza autonomoan ez duela esku hartzen esatean, edo ez ditugula jatera behartzen esatean... jendeak uste du hemen haurrak abandonaturik egoten direla... Ezin dugu esan Pikler Pedagogiak beste herrialde batzuetan duen izena ona duenik gaur egun Hungarian. Frantzia, esate baterako, 30 urte baino gehiago ditu Pikler elkarteak. Horixe da gaur egun errealitatea.

Badira errespetatzen gaituztenak eta gugandik asko ikasi dutenak. Eskola honetan sartzeko, esate baterako, ikaragarritzko itxaron-zerrenda dago.

Zergatik ez da onartzen Pikler Pedagogia, haurraren autonomia errespetatzen duelako?

Ez dugu espero jende guztiak onartzea. Pikler Pedagogia ez dator bat mundu guztiaren nortasunarekin. Gainjartzea gustatzen zaionari edo irakastea gustatzen zaionari oso zail egiten zaio jarrera hori alde batera uztea, eta horrez gain, hain kalitate handiko arreta eskaintzea zaila da.

Jende askok Pikler Pedagogiaren ehun hitz bakarrik dakizki: jolas autonomoa, mugimendu librea eta zainketa-uneetan kolaboratzea. Orduan diote, “Piklerrek ez du hezten, zaindu

bakarrik egiten du”. Behin honako hau gertatu zitzaigun: hezitzaile bategi Piklerren ehun hitzak entzun zituen eta eskolan arauak aldatzea erabaki zuen. Ordura arte bi urteko gelan haurrak sartu aurretik zaintzaileak jostailu eta panpina guztiak ateratzen zizkien alfonbrara, eta haurrak sartzeko jostailuak esnatu, haientzat sukaldatu, jaten eman... eta horrela igarotzen zuten goiz osoa. Jolas autonomoari buruz entzun zuen hezitzaile hark umeak ez gidatzea erabaki zuen, eta egun batetik bestera, haurrak gelan sartzean ez zuten jostailurik aurkitu. Helduek uste zuten jostailuak bilatu eta euren kabuz hasiko zirela jolasean umeak, elkarrekintza berriak sortuz, irudimena garatuz... Baina haurrak galduta zeuden, eta ez ziren hasi jolasten. Hezitzaile hark zera erabaki zuen, “hemen ezin da Pikler aplikatu”. Ez zuen deus ulertu. Pikler ez da metodo bat, ez dago errezetarik, ez dago trikimailurik; pedagogia bat da, filosofia bat, jarrera gizatiarra hamaita gehaztasunekin.

Jende askok ez du ulertzen haur batengana gerturatzen naizenean, ukitzen dudanean, pixoihala aldatzean “ze nazka!” esan beharrean “kaka egin duzu? Oraintxe kenduko dizut pixoihala eta garbituko zaitut” esatea hezkuntza dela. Eta ez da gauza bera haurra bere bizkarraren gainean oinak goraka dituela mugiezin egotea edo zainketan parte hartzen egoteko moduan egotea; hau guztia ikasketa gizatiar eta soziala da. Hezkuntza ez da haurrak eserita edukitzea eta predikatzea edo errieta egitea; hezkuntza jarrera gizatiar bat da, gauzak nola egin, nola esan, pertsonak nola tratatu, nola ukitu... hori guztia zaintzea da hezkuntza. Hemengo hezitzaileek ez daramatzate haurrak eskutik, ez diete oinez ibilarazten oraindik gai ez badira... Baizik eta adi daude haurrak nola ari diren ikasten zutitzen, oinez ibiltzen hasten... Baina ezin dugu pentsatu guraso guztiak ulertu eta onartu be-

har dutenik pedagogia hau. Gurasoak oso guraso onak izango dira euren seme-alabak eskutik helduta zutik jartzen badituzte ere, nahiz eta guk ez hala egin. Kontua da, guk uste dugula haurraren garapena aberatsagoa izango dela askatasun handiagoa baldin badu; baina badakigu garrantzitsuena maitasun-harremana dela.

Hemen hazi ziren haurrak nolako helduak dira gaur egun?

Jarraipen bat egon da, estudio bat egin da umezurtegiaren hazi ziren haurrekin, eta ikusi ahal izan dugu ondo eskolatuak izan direla, eta oso garrantzitsua dena: ez dituzte euren seme-alabak abandonatu; gurpil-zorro hori eten ahal izan dugu, abandonatuak izan diren haurrek euren seme-alabak abandonatzea oso ohikoa baita. Eta gaur heldu diren horiek, pertsonalki, ondo daudela ikusten da. Ez dugu esaten hobeak direnik.



Umezurtz-etxe batean, kontrako baldintza askorekin hazi diren haurrak dira, zaindu gabeko haurdunaldietatik etorriak... umezurtegiarik onena ez da inoiz familia on bat baino hobea izango. Baina fisikoki eta psikikoki pertsona sanoak dira, eta hori lorpen ikaragarria da. Jende askok, gaur egun,

uste du hori ezinezkoa dela.

Emmi Piklerrek pediatria gisa egindako lanaz zera esaten zuen: "Nire eskuetatik igaro diren haur batzuk heldu osasuntsu izango ziren ni euren pediatria izan ez banintzen ere. Baliteke euren mugimendua ez izatea hain ederra, baina heldu osasuntsuak izango lirateke. Baina haur batzuek bereziki harro nago, ahul jaio ziren umeak dira, ohikoa baino sentibera-goak zirenak, guraso neurotikoki edo egongaitzak zituztenak, eta nire sostengurik gabe, ziur aski, gaizki aterako ziren. Oso harro nago haur horietaz".

Baina hau ez da metodo bat. Eta askok jakin nahi izaten dute ea hemen hezi diren haurrak hobeak edo okerragoak diren, hau mirarizko metodo bat balitz bezala. Ez, hau laguntza bat da, haurra egoki gara dadin laguntzen dion pedagogia bat, bereziki familiako sostengua ahula duten haurren kasuan.

zientzia Elhuyar Fundazioa **live**

Elhuyar Zientzia sarak Zientzia LIVE! emanaldietara gonbidatzen ditu Euskal Herriko ikastetxeak.

Emanaldiak, **DOAN**, 2014ko azaroaren 24tik 28ra izango dira, Elhuyarren Usurbilgo egoltzan.

Zer da Zientzia LIVE!?

Zientzia LIVE! zientzia-esperimentuak gazteei gerturatzeko **zuzeneko emanaldi praktikoa** da. Ordu eta erdiko saioan, 3 tallerretan banatuta, hainbat esperimentu landuko dira. **Parte-hartze** aktiboa eta zientziarekiko hurbiltasuna bultzatu nahi dira.

NORENTZAT: 12 urtetik 16 urtera bitarteko gazteentzat.

KOPURUA: 60 ikasle saioko, 3 tallerretan banatuta, 20 ikasleko 3 taldetan banatuko dira, etaaldi berean egingo dira 3 tallerrek; txandaka, gazte guztiak arituko dira 3 tallerretan.

EMAILAK: tallerretako esperimentuak horretarako prestakuntza jaso duten begiraleek zuzenduko dituzte, Elhuyarreko arduradun batek koordinatuta. EHUko zientzia-ikasketetako azken ikasturteetako ikasleak dira begiraleak, eta taller bakoitza bi begiralek gidatuko dute.

IZENA EMATEA: izena eman ahal gordeko da lekua.

IZENA EMATEKO ETA HARREMANETARAKO:

Lurdes Ansa

lansa@elhuyar.com

943 363 040 luzp.: 311

Antolatzailea:

elhuyar
Zientzia

Baliteke:





LOMCEri ez, Euskal Herrian gure hezkuntza eraiki

Mariam Bilbatua, Hezkuntza Zientzietan Doktorea

“Estatuko ikasle guztiek estatuak agindutako edukiak menperatzeko kontrol sistema ezarri nahi du LOMCEk”

LOMCEri aurre egin eta Euskal Herrian gure hezkuntza eraikitzeko Gure Gida-ren alderdi pedagogikoa eta curricularra landu du Mondragon Unibertsitateko Huheziko irakasle eta Filosofia eta Hezkuntza Zientzietako doktorea. Erasoaren kontzientzia hartu behar dugula dio, eta LOMCEk ez diela pedagogikoki eta sozialki beharrei erantzuten.

LOMCE pixkanaka hasi da ezartzen. Jaurlaritzak, akordio bidez, zenbait puntu lausotu dituen arren, ukaezina da ziurgabetasuna ekarri duela guraso, irakasle eta ikasleengana. Hezkuntza-sistemari eta eskola-proiektuei nola eragiten die beste erreforma bat ezartzeak?

Kontua ez da beste erreforma bat ezarri dela soilik, kontua da inposaketa erabatekoa izan dela LOMCE. Erreforma hau inolako kontsentsurik gabe ezarri da; ez dago hezkuntza-eragilerik ados lege honekin. Azken urteetan hezkuntza-mailan lortu diren hainbat alderdiri begira atzerapauso handi bat dakar. Inplantatu nahi den hezkuntza-eredua gizar-tearen eskakizunen aurka doa. Eta Euskal Herriari begira, gure hez-

kuntza-sistemak behar duen bidearen aurka doa.

Honen aurrean, nola erantzun? Nik uste dut bi bide egon daitezkeela: onarpenerana bata eta erantzutearena bestea. LOMCE atzerapauso ikaragarri bat dela sinetsi arren, berau onartzea da bide bat; baina bide arriskutsua. Ematen du ez dugula nahikoa indar biltzen aurre egiteko. Jende askok pentsatzen du legea ez dela osotasunean martxan jarriko, hauteskundeak etorriko direlako eta PPK gehiengoak galduko duelako. Hala ere, kontziente izan behar dugu legea martxan dagoela, bere prozesua hasita dagoela, eragina izaten ari dela, eta nik uste dut kontzientzia horretatik jarri behar ditugula martxan legeari aurre egiteko prozedurak; hori da LOMCEren aurrean dugun beste bidea.

Justifikatua al dago Euskal Herrian lege-erreforma ezartzea? PISAko azterketen emaitzak ez dira Europakoak baino okerragoak hemen...

PISAko emaitzei begira, adibidez, legearen justifikazioan aipatzen

diren emaitza kaskarrak ez dira Euskal Herri mailan ditugun emaitzak. Gure emaitzak Europako emaitzen oso parekoak dira, oro har. Eta azpimarratzekoa da, bai Erki-dego Autonomoan eta Nafarroan emaitza altu horiek ekitatiboak direla, hau da, emaitzak altuak direla ikasle guztien kasuan. Emaitzetatik ezin da justifikatu LOMCE, eta beharretatik ere ez. LOMCEren oinarrietan aipatzen da gizar-tearen erronkei erantzuten diela legeak, baina zein ikuspegitik? Ikuspegi profesional batetik erantzuten die, eta ez pertsona osoaren garapenaren ikuspegitik. Nik uste dut hori azpimarratzeko alderdi garrantzitsu bat dela. Gaur egun, Europa mailatik planteatzen den eskakizunetik dator oinarritzko gaitasunetan hezi beharra, Europatik etengabe aipatzen da kompetentzietan hezi beharra, gizar-te konplexu batean bizi baikara, aniztasuna da nagusi, desberdintasun ikaragarriak daude, informazioa etengabe jasotzen dugu eta zailtasunak ditugu informazio uholde horri aurre egiteko; horren aurrean beharrezkoa da oinarritzko gaitasunak garatzea, baina LOMCEk bizkarra ematen die.



Zergatik diozu egun bereziki beharrezkoa dela oinarrizko gaitasunak garatzea?

Oinarrizko gaitasun hauek pertsona orok garatu behar ditugun gaitasunak dira, gizartearen eskakizunei erantzuteko, bai maila pertsonalean eta baita gizarte mailan ere. Derri-gorrezko Hezkuntzak bermatu behar du pertsona orok gaitasun hauek garatzeko aukerak edukitzea. Gaitasun hauek ez daude lotuta edukien ezagutzarekin, haratago doaz. LOMCEk, ordea, ezagutzak lehenesten ditu, bai curriculumaren dekretuetan eta bereziki ebaluazioaren planteamenduan. Eta argi daukagu ebaluazioak ikaragarriko garrantzia duela ikaste-prozesuetan, hau da, nola izango garen ebaluatuak, horren arabera ikasten dugu.

Euskal Herriaren ikuspegitik, gainera, beste zerbait dugu esateko LOMCEren aurrean. Erreforma honek intentzio bat du, historiaren, kulturaren eta hizkuntzaren ikuspegi zentralizatua, hau da espainiarra, ezartzeko intentzioa. Ezin dugu ahaztu eskolak pertsonaren identitatearen eraikuntzan duen garrantzia. Eskolatik aldarrikatu behar dugu

Euskal Herrian eskubidea dugula gure historia ezagutzeko, gure kultura eskuratzeko; hori baita bide bakarra norberaren identitatea eraikitzeko.

Konpetentziak baztertzea, edukien ezagutza eta ebaluazioa, hiru horiek lirateke erreformak aitortzen duen asmo neoliberal hori ezartzeko tresnak?

Erreformaren asmo neoliberal hori hezkuntzaren ikuspegiari islatzen da. Hau da, hezkuntzak zer lehenetsi behar du? Onenak lehenetsi behar ditu edo lortu behar du hezkuntzak pertsona bakoitzak, dagoen lekutik eta kontuan izanik haurren arteko desberdintasunak daudela eta, gainera, maila sozioekonomikoak eragin handia daukala, dituen eskubideak bermatzea? Hori oso garbi ikusten dugu PISAko emaitzetan. Emaitzetatik hezkuntza-sistemak desberdindu daitezke: sistema batzuek, Finlandiakoak esate baterako, emaitza onak lortzen dituzte baina ekitate handiarekin, hau da, ikasle denek lortzen dituzte emaitza onak. Aldiz, beste sistema batzuek ere emaitza onak lortzen

dituzte batez beste, baina horien artean ikasle gutxi batzuek lortzen dituzte oso emaitza onak eta beste batzuek emaitza oso baxuak ateratzen dituzte. Emaitzek erakusten digute sistemaren antolaketa. Ekitate erakusten duten sistemek helburu bat dute: heterogeneitatea abiapuntutzat hartuta, emaitza altuak lortzea ikasle guztiek; aldiz, eta nik hor kokatzen dut LOMCEren ikuspegi, badaude beste sistema batzuk gutxi batzuek emaitza altuak lortzea lehenesten dutenak.

Begiratu behar dugu zein den LOMCEren hezkuntza-helburua, eta nola erantzuten dion ikasleen artean dagoen aniztasunari. Gutxi batzuen emaitza onetara bideratu nahi du sistema, eta ez denen emaitza onetara. Eta ikuspegi horretan kokatzen da ikastetxeen artean egin nahi den lehia. Ebaluazioak ikastetxeak bereizteko funtzioa du; rankingak egin nahi ditu LOMCEk, eta ranking hauek publikoak izango dira, eta baliteke, rankingen arabera jasotzea laguntzak. Legeak ikasle onak eta ikasle txarrak bereizten ditu, eskola onak eta eskola txarrak, beraz, bazterketa areagotzeko bidean jartzen gaitu. Zer egingo dute eskolak? Zein da arriskua? Eskolak emaitza onak lortzera bideratzea, eta emaitza horretarako, ikasle onenen emaitzak hobetzen ahalegintzea, hau da, elitea elikatzea.

Aipatu duzun hezkuntza-eredu horrek, ez dio asko laguntzen inklusioari.

Adibideak baditugu zer egin behar dugun eta zer ez dugun egin behar. LOMCEk ekitatean oinarritutako hezkuntza oztokatzen du. Eskolaren zeregina da guztien eskubideak bermatzea, hori da hezkuntza-kalitatea. Ikasle guztien ikaste-prozesua bermatzen dugun eskola behar dugu, eta hori ardatz hartzen

badugu gaitasun gehiago izango ditugu LOMCEri aurre egiteko. Hezkuntza-eskubidea hori da, eta eskubide hori ez da bermatzen homogeneitatek abiatzen bagara, baizik eta heterogeneitatek abiatzen bagara. Gelan konpetitibitatea bultzatu beharrean bultzatu liteke elkarren arteko laguntza. Elkarrekin ikasiz hobeto ikasten dugu eta, gainera, konpetentzia asko garatzen ditugu.

PISAko arduradunak elkarrizketa batean Espainiako Estatu mailako hezkuntza-sistemaren ahulguneei buruz galdetzen ziotelarik bi alderdi aipatzen zituen: Batetik, ikasleak ohituta daudela buruz ikastera, gehiegi lantzen da memorizazioa eta eskolarizazioa bukatzean ikasle horiek ez dira gai ideien arteko erlazio sakonak egiteko, eta hori ahulezi ikaragarria da. Hezkuntzak ez du pentsamendu abstraktua garatzen, memorizazioa bakarrik lantzen du, eta LOMCEk areagotu egiten du ahulezi hori. Aipatzen zuen beste ahulezia motibazioari buruzkoa zen: sistema eta eskolak antolatuta dauden moduan, irakaslearen transmisioan oinarrituta, ikasleen parte-hartzea bermatu gabe, ikasleak ez daudela motibaturik ikusi zuen PISAko arduradunak; ikasleak aspertu egiten direla. LOMCEk alderantzizko bidean jartzen gaitu: gaur egungo kulturari, ikasleen kulturari erantzuten dioten espazioak sortu beharrean, interakzioa, elkarlana, pentsatzea, partekatzea, parte hartzea bultzatzen duten espazioak bultzatu beharrean, badirudi LOMCEk emaitzak bilatzen dituela, bakarka ikastea, memorizazioa... eta horrek porrotera eramango gaitu. Horren kontzientzia izan behar dugu: erreformarekin kanpoko ebaluazioetan, PISAn, ziurrenik emaitza okerragoak lortuko ditugu, eta haurren konpetentzien



“Ebaluazioa da ideologikoki PPK erakutsi nahi duen historia behartzeko tresna”

garapenean ere atzerapauso handia egingo dugu.

Ebaluazioa tresna bat izan beharrean, helburua da LOMCErentzat. Aurten hasiko dira eskolatik kanpoko azterketak ezartzen, nahiz eta horiek ez duten espedientearen eragingo. Zer egin dezakete irakasle-guraso-ikasleek errebaliden bidezko ebaluazioak halako pisurik izan ez dezan? Nolako ebaluazio-sistemak lagunduko luke?

Ebaluazioa oso garrantzitsua da. Ebaluazioaren bidez badakigu non gauden, zeintzuk diren gure hutsuneak eta zer dugun hobetzeko. Ebaluazioa erreinbidikatu behar

dugu, baina tresna moduan. Oso garrantzitsua da ebaluazioaz hausnarketa egitea: Nola egiten da ebaluazioa? Zertarako egiten da ebaluazioa?

Arrakasta daukaten sistemek badauzkate kanpoko ebaluazioak, baina ebaluazio horien emaitzak autoebaluazioarekin lotzen dira. Sistema egokia da kanpoko inputak baliogarriak bihurtzen diren ikastetxearen hausnarketa bideratzeko eta hobekuntzak bideratzeko, ez ikastetxeak sailkatzeko. Baina ebaluazioa positiboa izan dadin, eskola barruan egitura batzuk behar dira, ebaluazioaren eta emaitzen inguruko hausnarketa egiteko. Horretarako irakaslego guztiak hausnartzeko aukera izango duten espazioak sortu behar dira. Bere errealitatek abiatuz, hobekuntzak identifikatzeko denbora eta espazioa behar dute irakasleek. Nik zalantza daukat ezarri nahi den eskolaren antolaketa-sisteman hori posible izango den, horretarako hezkuntzan ikaste- eta irakaste-prozesuekin loturiko lidergoa behar baita. Aldiz, LOMCEk planteatzen duen zuzendari-profila desberdina da, profil hori administratibotik datorren pertsona bat da, printzipioz ez duena bermatzen lidergo gaitasuna izango duenik.

Ikasleei begira, zer funtzio bete behar du ebaluazioak?

Ebaluazioak prozesuarekin lotuta egon behar du. Ebaluazioak datuak eman behar dizkigu ikasi behar dugunarekiko zer dakigun eta zein den egin behar dugun bidea ikusteko, bai ikasleentzat eta bai irakasleentzat. Ikasleari datuak eman behar dizkio bere prozesua autoerregulatzeko, eta irakasleei ikasleen erregulazio hori bideratzeko eta bere prozesua egokitzeko. Horrela planteatuta, ebaluazioa hausnarketa bide

bat da, ikasleen ikasten ikasteko gaitasuna areagotzeko tresna bihurtu daitekeena. Baina LOMCEren plan-teamenduan, ebaluazioa bukaeran gertatzen den zerbait da, prozesuari bizkarra ematen diona. Gainera, curriculuma ikusita eta Espainiako ministeritzari entzunez, susma liteke, batxilergoko probak eta DBHkoak erantzun anitzeko probak izango direla. Horrelako proben bidez buruz ikasitako ezagutza soilik erakutsi dezakezu. Horrez gain, zer edukietara bideratzen du ebaluazioa? Estatuko ikasle guztiek estatuak agindutako edukiak menperatzen dituela bermatzeko kontrol sistema bat ezarri nahi du LOMCEk. Ebaluazioa bihurtzen da ideologikoki PPK erakutsi nahi duen historia ikasteko edo behartzeko tresna nagusia. Beraiek azpimarratzen dute kontrol horren garrantzia, eta badirudi hemen ez dugula horren kontzientzia argia hartzen.

Baina erkidegoek aukera dute beraien edukiak planteatzeko, ezta?

Bai, baina ebaluatuko diren irakasgaiak estatuak markatzen dituen horiek dira. Ez da bakarrik edukien % 50 inposatua daukagula, baizik eta % 50 hori dela ebaluatua izango dena.

Sistemaren zentralizazio edo espainiartzeaz gain, bertikalizazio bat ere badakar LOMCEk, ezta? Selektibitateak batxilergoa markatzen du, batxilergoak DBH... Edukiei gero eta garrantzia handiagoa emanaz eta kompetentziei kenduz, Haur Hezkuntzatik jarriko ditugu haurrak selektibitatea prestatzen?

Ebaluazioa izango da sistemaren inposaketaren ardatz. Eta arriskua daukagu beldurratik, rankingak direla-eta, joku horretan sartzeko. Sistema horrek dituen arriskuez jabetu behar dugu, bai ikaste-

prozesuari begira, ikasleek oztupoak izango dituzte LOMCEekin bizitzarako, gizartean aritzeko, norberaren garapenerako beharrezkoak dituzten konpetentzia hauek garatzeko. Alderdi kognitiboa lehenesten du, eta gaur egun ondo dakigu beste alderdi batzuek ere, afektibitateak eta motibazioak, esate baterako, zer nolako indarra daukaten ikaste-prozesuetan. Baina LOMCEk horri guztiari bizkarra ematen dio, eta hori ikaste-prozesuaz gaur egun dakigun guztiari bizkarra ematea da.

Eta Euskal Herriko ikuspegitik, LOMCE oztupo bat da gure historia, gure kultura, gure hizkuntzaren transmisioan eta eraikuntzan jarraitzeko.

LOMCEk dakarren horri guztiari aurre egiteko, eskolek zertan jarri beharko lukete indarra, zure ustez?

Nik uste dut erasoaren kontzientzia hartu behar dugula. Arrisku handi baten aurrean gaude. Euskal Herriko hezkuntza-sisteman eskuratu ditugun hainbat lorpen galtzeko arriskuan gaude LOMCEri aurre egiten ez badiogu. Era berean, une hau interesgarria da behar dugunari buruzko kontzientzia hartzeko. Gaur egun Euskal Herrian zer behar dugu? Baditugu hainbat diagnostiko, orain dugu diagnostiko hauen aurrean garatu behar ditugun bideak zein diren aztertu behar dugu. Adibidez: Eusko Jaurlaritzak iaz neurketa bat egin zuen eta hor argi agertu zen euskara arloan lortutako emaitzak ahulak zirela; eta nire galdera da: zer egin da, zer politika jarri dira martxan ahulgune horri aurre egiteko? Nik oraindik ere jarraitzen dut entzuten ingelesa bermatu behar dela, ereduak oraindik baliogarri direla... eta azken hori demostratu da ezetz. Diagnostiko argiak izan behar ditugu, baina bide argiak eraiki behar ditugu gure ahuleziei erantzu-

teko, bai administrazioaren aldetik eta baita ikastetxeen aldetik ere. Ahuleziak agerian ditugu, baina ezartzen ditugun politiketan edo neurrietan kanpoko diskurtsoek pisu handiagoa hartzen dute.

Eskola asko LOMCEren aurka egon arren, zuk zeuk esan duzu, onartzeko prest daudela. Onartu nahi ez badugu, zer egin?

Desobedientzia. Gaur egun beldurra ematen digu desobedientziak, baina Euskal Herriko hezkuntza-sistema desobedientziaren bidean eraiki dugu, ikastolen sorrera gogora dezagun... Hizkuntza-ereduen inguruan ere ikusi dugu desobedientziaren bidetik hurbildu zirela ikastetxe asko A eredutik B-ra eta ondoren murgiltze ereduera.

Kasu honetan argi daukat banakako desobedientzia ez dela nahikoa, gizarte osoaren mobilizazioa beharrezkoa da, eta, horren barruan, administrazioaren mobilizazioa beharrezko ikusten dut. Zure hezkuntza-sistemaren aurka doan zerbait, legearen ikuspegitik beretik ere zure eskumenaren aurka baldin badao, zergatik onartu? Administrazioak presio sozial bat behar du, eta presio sozial hori ulermenetik dator, hezkuntza-eskubideen urraketa bat egongo dela ulertzetik. Gure ikasleek eta seme-alabek denbora eta aukerak galduko dituztela ulertu behar dugu, eta ezin dugula hori onartu.

Herrietan, gurasoen artean, eskoletan eta administrazioetan kontzientzia hartu behar dugu, eta konpromisoa hezkuntzarekiko. Hainbeste ikuspegitatik da erreforma negatiboa, denok izan dezakegula zerbait LOMCEri ez esateko. Horren aurrean harago joatea eta gure hezkuntza-sistemak garatu behar dituen ildoak zein diren adostea lortzea itzela izango litzateke; eta beharrezkoa da.



0-3. Hezitzaileen formazioa

Alvaro Beñaran, psikomotrizista. Formazio pertsonalaren arduraduna

“Gorputzetik abiatzen gara, eta plazer sentsazioetatik, hezitzailea bere gaitasunak lantzera eramateko”

0-3 urte bitarteko hurrekin lan egiten duten hezitzaileen formazioan bigarren ikasturtea hasi du Alvaro Beñaranek ere. Lehen kurtsuan daudenekin haurren mugimendu askeak presentzia handiagoa izango duen Formazio Pertsonala landuko du, eta bigarren ikasturtean daudenekin, aldiz, Loris Malaguzziren ekarpenetara ere gerturatuko da.

0-3 bitarteko hurrekin lan egiten dutenentzat zergatik da garrantzitsua Formazio Pertsonala? Zer lantzen da saio horietan?

Formazio pertsonala estrategia bat da, pertsonen euren burua formatzen laguntzeko estrategia. Nire ustez hori da printzipio inportanteenetako bat. Hau da, guk ez ditugu formatzen, baizik eta eurak formatzen dira. Guk formatzen laguntzen diegu. Guretzat prozesuak bizitzea da inportantea, hau da, hor egiten duguna ez da entrenamendu bat, ez da gero hurrekin egin ahal izateko zerbai-



tetan trebatzea, baizik eta norberak egoera zehatz batzuk bizitzea. Egoera horietan sentsazioak eta sentimenduak jasotzea, irudiak eta pentsamenduak sortzea eta pertsonen horien guztien arteko loturak

egiten laguntzea. Eta, batez ere, kontuan hartuz gauza bat: ez dela pertsonarentzako formazio bat, baizik eta hurrekin lan egitera begirako prestakuntza bat dela. Horregatik pertsonak berak lotura

egin behar du formazioan bizi duenaren eta haurrarekin lanean gertatzen denaren artean. Bi egoera horiek lotzeko gauza izan behar du. Adibidez, "formazio pertsonalean agresibitatea tartean egon denean, ni urduritu egin naiz eta oso gaizki pasatu dut", eta akaso hor konturatzeko zara: "Jo, egia da haurren artean agresibitatea agertzen denean nik egoera hori gelditu egiten dudala, baina agian ez da agresibitatea txarra delako, baizik eta nik ezin dudalako onartu agresibitate hori". Hortaz, gure helburua da pertsona mugiaraztea, bere pentsamenduan eragitea eta era horretako loturak eginaraztea. Jakin dezala bereizten zer den berea eta zer haurrena. Eta konturatu hori guztia ez dela teoria bat, pertsonarengan dagoen zerbait baizik.

Aurten bigarren ikasturtea egiten ari direnek Formazio Pertsonala iaz ere landu zuten. Haien zer izango da berria?

Saiatzen naiz prestakuntza honek estetikoki, edo gaiei dagokienez, egiten ari diren bi urteko formazio horrekin harremana izan dezan. Adibidez, lehen urtean mugimendu mailan ume txikiak bizitzen duen garapena ardatz hartuta lan bat egin genuen; lurtean egotetik hasi eta zutikako posizioa iritsi arteko prozesua bizi izan zuten ikasleek. Ariketa haren bitartez argi geratu zen zer nolako bizipenak izan ohi dituzten haur txikiek horrelako prozesu batean. Orain arte bizi izan duguna haurraren lehen 15-18 hilabeteekin lotzen da.

Bigarren ikasturtean, badakidenez Loriz Malaguzzi ari direla lantzen, bi planteamendu mota egin ditut: batetik, haurraren garapen horrekin lotura duten ariketak egiten jarraitzea. Zer dator gero? Haurra zutik

“ Gure baitan dugun haurra ez da desagertzen, jarraitzen du eragina izaten guregan nahiz eta guk aldi hori ahaztua izan ”

“ Hezkuntza mota bat sustatzen badugu, era horretako gizartea nahi dugulako izan beharko litzateke. Uste dut saiatu behar dugula ahal dugun eta koherenteen izaten ”

jartzen da eta bere ingurunearekin eta ingurukoekin harremanetan hasten da. Mugitzen denean objektuekin aurkitzen da eta baita beste pertsonekin ere. Bere burua agertzen hasten da, baina ez hori bakarrik, baita beste pertsonen agerpenekin topo egiten ere. Etapa horretan piskanaka sozializazioa hasten da. Dagoeneko garrantzia ez du "Ni"-ak bakarrik, "Gu"-a ere jokoan sartzen da. Beste alde batetik, badakidenez Malaguzziren planteamenduetan estetikak eta plastikak inportantzia handia

dutela, saiaturko naiz bi horiek erabiltzen bizitzeko alderdiez jabetzeko, baina, lehen esan bezala, ez da izango ariketa horiek haurrekin egiteko, baizik eta eurek euren baitan bizitzeko.

Formazio Pertsonalean hezitzaileek euren burua behatzen eta aztertzen dute, gero haurra hobeto begiratzeko. Norbere buruaren behaketa horretan zein alderdi aztertzen dira? (Alderdi emozionala, harremanetarako gaitasuna, norbere gorputzaren gaineko ikuspegia, entzuteko eta enpatiarako gaitasuna...)

Gure printzipioa da ea saioetan nola lor dezakegun sentsazioak bizitzea. Hori da abiapuntua. Horregatik beti gorputzetik abiatzen gara eta, ahal den neurrian, plazer sentsazioetatik. Horregatik, hezitzailea bere gaitasunak lantzen eramanen dugu. Baina hasieran gure helburua ez da pertsona hori inolako erronkaren aurrean jartzea. Abiapuntua da plazer hori bizitzea eta norbere gaitasunez konturatzea. Nik hasieran ez dut inoiz gorputz ariketa zailik planteatzen, hori pertsona gaitasun-ezean jartzea bailsateke eta horrek ez bailuke zentzurik. Kasu horretan nire eskuetan jarriko nituzke hezitzaileak: "Nik ez dakit, salbatu nazazu zuk", esango lukete. Baina gure xedea juxtu kontrakoa da: pertsona bestelako egoeretan jartzea, non esango duen: "Hau da dena? Nik hau badezaket... eta gainera, zeinen ondo pasa dudan". Pertsona batek ikusten badu "baditut plazerak eta gaitasunak nire baitan", gero posible izango da zailtasun horiekin jolasten hastea. Hori da funtsezko mugimendua. Eta, gainera, uste dut prozesu hori heziketa osora orokortu daitekeela, haurrekin ere gauza bera gertatzen



0-3 formazioko bigarren ikasturteko hezitzaileak Formazio Pertsonaleko saio batean.

baita. Oinarrian beti segurtasuna eta plazera daudenean, horren gainean, pertsonak badu gaitasuna, energia eta indarra prozesuan zehar topatuko dituen zailtasunei, frustrazioei, ezinei... aurre egiteko. Guk beti segurtasuna ematen duten egiturak eraikitzen ditugu, eta alderdi hori ondo zainduta baldin badugu, gero jendea arriskatzera eramán dezakegu, beti ere ondo sostengatuta. Ondoren, norberak erabakiko du arriskuak hartzen dituen edo ez. Egon daiteke gehiegi ez inplikatzera erabakitzen duen norbait. Nik beti inplikatzeko esaten diet, formatzen ari direla, merezi duela, aukera hori aprobeztatzea komeni zaiela... baina bakoitzak erabakitzen du zer egin.

Hezitzaileak haur txikiekin jarduteko duen gaitasuna, berak haurtzaroan izan duen egitura afektibo eta

harremanetakoekin lotuta dagoela diozu. Hori, baina, ez dago liburutetan idatzia, norbere bizipenetan baino. Nola landu daiteke?

Hemen egiten duguna ez da terapia bat, orduan ezin da pertsona bat aldatu, baina egin daitekeena da mugimendu bat sortu pertsona horrengan eta gero bakoitzak erabakiko du gehiago sakondu nahi duen edo ez. Baina, gutxienez, mugimendu bat pizten dugu bere baitan, uste dut aukera bat ireki dakiokela pertsonari. Gu 0-3 zikloko hezitzaileekin gaude eta hori ez da ahaztu behar. Juxtu 0-3 zikloari buruz dakiguna da pertsonaren bizipenak ez direla pasatzen pentsamendutik, baizik eta gorputzetik pasatzen direla. Horregatik formazio honetan ere gorputza ukitzen dugu. Badakigu denok ditugula grabatuta gure historiak gorputz horretan. Horregatik, buruarekin bakarrik ez,

baizik eta pertsona osoarekin saiatuko gara ulertzen nola gertatzen diren bizipen batzuk, afektu batzuk, sentimendu batzuk egoera batzuetan. Zuri hori gertatzen ari zaizu zu haur bat ere izan zinelako eta zarelako. Gure baitan dugun haurra ez da desagertzen, jarraitzen du eragina izaten guregan nahiz eta guk aldi hori ahaztua izan.

Horretaz guztiaz jabetzea da garrantzitsua. Guk ikusi duguna da liburu batean irakur dezakezula haurrak nolakoak diren, zer nolako esperientziak bizitzen dituzten, euren garapena nolakoan den... baina horrek guztiak benetan ukitzen zaituen arte ezin duzu jakin prozesu horien aurrean nola jokatu duzun. Laguntza pertsonal honek horretan laguntzen du. Nik ikusi dut agresibitate apur bat suposatzen duen ariketa baten aurrean jendea esanaz: "Ez nuen

pentsatzen kuxin batengatik horrela jarriko nintzenik. Ematen zuen nire bizitza jokoan zegoela kuxin hori lortzeko eta igual baten bati mina eman diot. Nondik atera zait jarrera hori? Nola da posible?”. Ez dugu terapia egiten, baina pertsona bere buruari galdetzen hasi da zergatik atera ote duen agresibitate hori. Hausnarketa mota horiei atea irekitzea da gure egitekoa.

Gauza bat da teoria. Pertsona batek oso argi izan dezake atxikimenduaren, banaketaren edota indibidualizazio-prozesuaren teoria, baina horrek ez du esan nahi haurra prozesu horretan laguntzeko gai izango denik. Formazio Pertsonalak lagun dezake praktikarako jauzi hori egiten?

Nik uste dut baietz, laguntzen duela. Mintegi teorikoen bidez ere, batzuetan lortzen da pertsonari modu berezi batean eragitea. Badaude jendea ukitzen duten hitzak. Batzuetan segun eta zer nolako dinamika sortzen den eskola teoriko horietan posible da pertsona bat mobilizatzea. Baina nik uste dut Formazio Pertsonalak errazago duela helburu hori lortzea. Izan ere, pertsona bere gorputzaren bidez inplikarazten duzu. Formazio Pertsonalean pertsona zeharo murgilduta dago. Zenbait gauza distantziatik begiratzen baditugu, ez gaituzte ukitzen, eta gainera sarri, adimena erabiltzen dugu defentsa bezala. Eta zer egiten dut? Arazo hori proiektatzen dugu haurrengan eta familiengan eta esaten dut: “Familiako kideek dute arazo bat banaketarekin, nik ez”. Baina banaketa-arazoaren inguruan egoera bat bizitzen baduzu, eta akaso bat-batean bakarrik sentitzen bazara, agian zure buruari galderak egingo dizkiozu: “Zergatik ezin naiz bakarrik egon lasai-lasai? Zeren nik

pentsatzen nuen bakarrik egon nintekeela eta, bat-batean, egoera horretan bestea joan denean zerbait latza sentitu dut”. Hurrengoan ikusten duzunean haur bat edo familia bat banaketarekin arazoekin dabilela ohartuko zara hor zerbait gertatzen dela.

Hortaz, igoal Formazio Pertsonalaren bidez ez duzu aurkituko zure pertsona, helburua ere ez baita norbere buruari buruz dena jakitea, baina bai sentsibilitate bat hartzea. Hobeto enpatizatzeke balio du. Batzuetan, gainera, agian ez da nik bizi izan dudanaren eraginez, baizik eta nire ondoan bizitzen ari denak bere bizipen hori partekatzen duelako. Eta hori ere interesgarria da, zeren akaso dena ere ez dugu guk geuk bizi behar. Guretzat, bizipenak besteekin partekatzea oso garrantzitsua da. Jendeak ikusten du garrantzitsuena ez dela egoera, baizik eta bakoitzak egoera hori nola bizi izan duen. Zeren askotan errealitate beraren aurrean bizipen oso ezberdinak izaten dira.

Koherentziak hezitzaileen lan eta bizitzan duen garrantzia behin eta berriz errepikatzen duzu. Askotan, ordea, haurren heziketarako helburu batzuk izan arren, ez da erraza izaten lankideen artean edota gurasoekin dinamika berberak edukitzea.

Hori nire obsesioetako bat da azken aldian. Askotan aztertzen dugu zer gauza egin hurrekin, eta nik uste dut alde zuzenetik badela kontuan izan beharreko beste gauza bat: bizitzan zehar zer egiten dugun guk, hain zuzen ere. Zeren bestela errealitatea eta eskola banatzeko joera izan dezakegu. Hau da, ni profesional ona izateko prestatzen naiz, gauza batzuk oso ondo aztertzen ditut, baina hori ez dut lotzen benetako bizitzarekin. Nik

eskolaz kanpo dena beste modu batean egin dezaket, baina eskola-ordu horietan balio eredu-garriak transmititzen ditut. Horregatik nik pentsatzen dut saiatu behar dugula esaten: Hurrekin nahi dugun hau guk ere lantzen dugu gure artean? Adibide bat jarriko dut: zuk egiten baduzu jolas kooperatiboa haur batzuekin eta haserretzen bazara beraiekin ez delako ondo atera eta gaizki tratatzen badituzu, zer nolako zentzua dauka joko kooperatibo horrek? Zuk giro kooperatiboa sustatzen baduzu, orduan zentzua hartuko du jolas kooperatiboak ere. Haratago joan behar dugu: zer da benetan gure gizartean nahi duguna? Edo sinesten dugu horretan haurrentzako, baina ez dugu argi ikusten helduentzako? Guk ezin dugu zeharo banatu laneko eta lanaz kanpoko bizitza. Ezin dugu esan: 0-3an nagoenean balio mota batzuk izango ditut, baina handik bizitza “errealera” ateratzen naizenean beste batzuk. Gure lanean ezin dugu hori egin. Hezkuntza mota bat sustatzen badugu, era horretako gizartea nahi dugulako izan beharko litzateke. Uste dut saiatu behar dugula ahal dugun eta koherenteen izaten.

Formazio Pertsonalaren beste ezaugarri bat zera da: prozesu pertsonalak direla, baina taldean eginak. Konbinaketa hori ere garrantzitsua da, zeren hori gaur egungo hezkuntzaren zailta-sunetako bat dela uste dut: nola landu NI eta GU, biak batera. Ez da erraza. Batzuetan eskua erabat NI-ra joaten zaigu eta GU desagertu egiten da; beste batzuetan aldiz, kontrakoa. Gakoa da nola lortu elkar elikadura hori: NI naizelako GU eraikitzen dugu eta GU garelako NI errespetatzen dugu.

Emozioak Gorputz Hezkuntzan

Gorputz Hezkuntzako III. topaketetan emozioei buruz jardun ziren, batetik, Gorputz Hezkuntza emozioz betea baitago, eta, bestetik, programazio bateratuaren aurkezpenak egin zituzten.

SOHAT

SOIN HEZKUNTZAREN ALDEKO TALDEA

Pasa den ekainaren 25ean, Gorputz Hezkuntzako III. Topaketa egin zuten, eta Emozioen Gorputz Hezkuntza izan zen gai nagusia. Mintegietan egindako hainbat lanen eta beste zenbait esperientziaren berri ere eman zen topaketan. Guztira, hainbat hezkuntza-mailatako 120 irakasle inguru bildu ziren Iurretako Institutuan: Lehen Hezkuntzakoak, Bigarren Hezkuntzakoak, unibertsitateko irakasleak...

Jon Lopezen (Berritzegune Nagusiko Zuzendaria) eta Begoña Garamendiren (Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaria) sarrerako hitzaldiak hasi zen topaketa. Ekitaldiko hizlari nagusia, berriz, Irene Pellicer Royo izan zen.

1. EMOZIOEN GORPUTZ HEZKUNTZA. IRENE PELLICER ROYO

Emozioen gaiari berehala heldu zion Irene Pellicer Royok. *Emozioa* hitzak inplizituki mugimendua dararamala nabarmendu zuen: *emotion - in motion - en movimiento*. Gorputz Hezkuntzaren arloa emozioekin erabat lotuta dagoela esan zuen, eta, beraz, aukera zoragarria dugula emo-

zioekin lan egiteko. Horrela definitu zuen emozioa: “Barneko kitzikapen edo asaldura bat da, nire barruan gertatzen dena” (Bisquerra 2003). Eta gure barruak gertaera baten aurrean nolako jokabidea duen azaldu zuen: gertaera jakin baten aurrean, balioetsi egiten dugu gertaera hori (positiboa edo negatiboagoa). Horretaz gain, erreakzio batzuk sortzen dira; adibidez, gorputzak berak izerdia atereaz edo dardarka erantzun dezake (erantzun neurofisiologikoa). Bestetik, portaera aurpegiaren espresioarekin lotzen du autoreak; eta, azkenik, kognitiboki *etiketa* jartzen diogu gure erreakzioari: “Haserretzen ari naiz”. Horren guztiaren aurrean, ekiteko jarrera edo prestasuna izango dugu aurretiaz, eta azken horren arabera izango da gure adimen edo inteligentzia; gertaera jakin baten aurrean ahalik eta modu egokienean ekiteko gaitasuna, alegia.

Hitzaldi osoan zehar, esaldi eta definizio gogoangarriak utzi zizkigun Irenek. Esate baterako, emozionalki hunkigarriak, garrantzitsuak edota harrigarriak egin zaizkigun egoerak soilik gogoratzen ditugula azaldu zuen; beraz, ikasleak hunkitzen ez badira, motibatzen ez badira, ezinezkoa dute gogoratzea, ikastea.

Egoera baten aurrean, beti dago emozio bat lehenengo, eta emozio hori indartsua izan bada ez dela arrazionalizatzen esan zuen Irenek; “amigdalaren bahiketa” deitu zion. Amigdalaren bahiketaren ondoren dator arrazoitzeko prozesua. Horregatik, oso garrantzitsua da emozioak identifikatzen jakitea eta sentitzen dugunaren kontzientzia izatea, emozioak modu egokian kudeatzen ikas dezagun eta, beraz, izan ditzakegun erreakzio bortitz edo deskontrolatuak bidegabeki ingurukoek jasan ez ditzaten. Adibide bikain baten bidez azaldu zuen hori; emozioa hasieran identifikatzen bada, haserre emozioa 2. mailan dagoenean identifikatzen bada, adibidez, aukera gehiago izango ditugu egoera hobeto kudeatzeko, haserre emozio hori jada 10. mailara iritsi denean baino.

Baina zenbat emozio daude? Irenek auzi hori kulturen arabera dela esan zuen. Adibidez, 8.000tik gora identifikatzen omen dituzte Indian; Espainian, berriz, 300 inguru identifikatzen omen dira. Bisquerraren sailkapenean oinarrituta, oinarritzko hamahiru emoziori buruz hitz egin zuen, eta hamahiru horien barnean zeuden beste zenbait azpiemoziori buruz ere bai:

ONARRIZKO 13 EMOZIOAK

AMORRUA/HASERREA
BELDURRA
ANTSIETATEA
LOTSA
TRISTURA
NAZKA

ESPERANTZA
ERRUKIA
HARRIDURA/SORPRESA

POZTASUNA
ZORIONTASUNA
UMOREA
MAITASUNA

Emozioak identifikatzea, izena jartzea, oso garrantzitsua dela adierazi zuen berriro Irenek, horrela, sentitzen dena kudeatu ahal izateko. Emozio guztiak beharrezko eta ezinbesteko bilakatzen dituela horrek gaineratu zuen, emozioak saihestezinak baitira. Izan ere, emozioak sentitzean, identifikatzean, hausnarketa bat egiten dugu, eta horren ondoren zer egin erabakitzen dugu. Adibide bat jarri zuen: emozio nagusia beldurra duen pertsona batek tentu handiz ibiltzeko joera izango du beti. Horrek, alde batetik, segurtasuna ekarriko dio arriskuen aurrean, baina, era berean, bizipen berriak galtzea ere ekarriko dio, baldin eta emozio hori identifikatzen ez badu, hausnarketa egiten ez badu eta aurre egiten ez badio. Tristeziari eskerrak ere, aldaketak egin ditzaket nire buruan, eta, ildo horretatik, neure burua hobetu dezaket. Emozioek bizitzen laguntzen digute.

Irakasleok ikasleei behatzea oso garrantzitsua dela eta asko balio duela azaldu zuen, emozioak identifikatu baitaitezke; ikasleari behar duenean lagundu diezaiokegu horrela.

Emozioek sentitzen eta bizirik irauten laguntzen dutela azpimarratu zuen, eta gaineratu zuen bera gimnasia jarduera fisikoa egitera nagusiki arrazoi emozionalengatik joaten dela jada. Emozioek gorputzean utzitako "arrastoak" nolabait askatzera edota



garbitzera joaten dela, ongizate fisikorako ere ona zela ahaztu gabe. Gainera, hainbat ikerketak argi erakutsi omen dute pertsonaren osasunerako eta ongizaterako jarduera fisikoa egiteak duen garrantzia, eta horretaz ere hitz egin zuen.

Emozioek denboran irauten baidute, sentimendu bilaka daitezke, eta, gehiago iraunez gero, gogoal-

darteaz hitz egingo genuke; emozioen agerpena are gehiago luzatuz gero, berriz, izaerarekin lotuko genuke.

GAITASUN EMOZIONALAK

Gaitasun emozionalen inguruan bost gaitasunez hitz egiten dugula esan zuen Irenek: kontzientzia emozionalaz, arautze emozionalaz, autonomia emozionalaz, gaitasun sozialaz eta bizitzarako eta ongizaterako trebetasunaz.

- Kontzientzia emozionala: emozioa identifikatzea da. Horretarako barneko energia-maila sentitzea beharrezkoa dela esan zuen hizlariak. Horrela, motibazioa (beraiek bilatu beharrekoa, gustuko duten zerbait bilatuz) landu behar litzateke energia-maila baxuko ikasleekin. *El monstruo de los colores* liburua gomendatu zuen. Berak ikasleekin nola sentitzen diren jakiteko, koloreak erabiltzen dituela ere azaldu zuen. Grafikoki, horrelako irudi batekin azaldu zuen hori guztia:

| ENERGIA | | | | |
|---------|----------|---|---|----------------|
| +5 | ALTUA | 0 | 0 | BAXUA -5 |
| EMOZIOA | | | | |
| +5 | ATSEGINA | 0 | 0 | DESATSEGINA -5 |



- Arautze emozionala: emozioa arautzeko, bi bide aurreikusten zirenen:

1. Askapen energetiko emozionala: jarduera higiarazlea edo fisikoa eginez. Neurofisikan aditua zen Moran jaunak (2011) zioen estresa askatzeko antidotoa jarduera fisiko aerobikoa egitea zela, ariketa egitean hainbat hormona sorrarazten baititu gizakiak: zoriontasunarena, umorea-rena, motibazioarena (serotonina eta dopamina endorfinak)

2. Gelditasun- edo lasaitasun-dinamikak: arnasketa lasaian eta guneetan arreta jarriz, gerrialdean, sabelaldean eta sorbaldean. Erlaxatzeko baliabide duena sabelaldekoa omen da soilik, baina ondo omen dator batera eta bestera airea garraiatzen jakitea.

Arautze emozionala bikoteka egirik ariketa baten bidez esperimentatu genuen. Ariketa horretan, 3 arnasketa motak egin genituen bakoi-tzak.

- Autonomia emozionala: norberaren egoeraz aritu zen hizketan (Bisquerra 2003).

1. Autoestimua.
2. Bizitzarekiko jarrera positiboa.
3. Ardura.
4. Arau sozialak kritikoki aztertze-

ko gaitasuna.

5. Autoeraginkortasun emozionala.

6. Laguntza eta baliabideak bilatzeko gaitasuna.

Atal honetan, *Los seis pilares de la autoestima* liburua (Nathaniel Branden) gomendatu zuen Irenek.

- Gaitasun soziala:

1. Pertsonarteko adimena: bestee-kiko harreman onak, komunikazio eraginkorra, errespetua, jarrera prosozialak eta asertibitate aipatu zituen gainetik.

- Bizitzarako eta ongizaterako trebetasunak:

ZERGATIK EMOZIOEN GORPUTZ HEZKUNTZA?

Gorputz Hezkuntza emozioz beteta dagoela esan zuen Irenek, eta emozio horiek nahi gabe agertzen direla eta beroriek kudeatzeko ardura gurea dela: “Ez gara emozioak sentitzearen arduradun, baina beroriekin zer egiten dugun gure ardura da”. Horrela, banandu ezinezko trinomio bat dagoela aipatu zuen: gorputza, emozioa eta adimena (burua).

Emozioen gaia lantzeko orduan aurretik aipatutako guztiatik dela

Gorputz Hezkuntza horren garrantzitsua azpimarratu nahi izan zuen. Lehen adierazi bezala, ikaskuntza emozioetan oinarritzen dela ere esan zuen, eta horiek, aldi berean, bizipenetan oinarritzen direla; eta gure arloa, bereziki, bizipenetan oinarritzen da. “Zorte handia daukagu, gure arloan hor baititugu emozioak”, esan zuen erabat jabetuta.

Hainbat autoreren aipuak ekarri zituen ondoren:

- “Gorputzak, ez baitu diskreziorik, ez daki isilik egoten” (Ralph Waldo Emerson 1803-1882).

- “Pertsonak soilik bere gorputzean senti dezake” (Mowen 1972).

- “Ikaskuntzaren moztorra da jolas” (Mora).

- “Ezin da ikasi edo atxiki emozioetatik iragaten ez den ezer”

-...

Beraz, Ireneren ustez, emozioen kudeaketari heltzen bazaio, bizitzarako tresnak edo baliabideak eskainiko dira. Gainera, esan zuen pentsamendua eta emozioak garuna eraldatzeko gai direla, eta, hortaz, irakasleak ere ikasleen garuna eraldatzeko gai direla (hori bai, jarraikortasunarekin, ahaleginaren bidez...). “Nire buruari dagokionez, nik nahi dudana bertsoa izan naiteke”.

Azkenik, irakaslearen garrantziaz jardun zuen. Irakasleak betetzen duen zeregina oso garrantzitsua dela azpimarratu zuen. Horri lotuta, “ispilu-neuronak” deritzen inguruan hitz egin zuen: “Irakasleak egiten duena egiten du ikasleak, ez hark esaten duena”. Hau da, irakaslearen ispilu bihurtzen dira ikasleak. Beraz, oso garrantzitsua da irakaslearentzat esaten duenarekin kontsekuentea eta koherentea izatea. Irakasleek pertsonekin lan egiteko duten aukera paregabea nabarmendu zuen, eta Gorputz Hezkuntza, bizitzarako irakas-ten den eduki guztiatik (hain da zabal eta aberatsa), arlo garrantzitsua dela esan zuen hitzaldia bukatzeko.



2. GORPUTZ HEZKUNTZAKO PROGRAMAZIO BATERATUAREN AURKEZPENA

Pizti Larrañagak, Jakintza ikastolako Gorputz Hezkuntzako irakasle eta Sohat taldeko kide denak, Gorputz Hezkuntzako programazio bateratuaren inguruan jardun zuten. Oso hitzaldi interesgarria eman zuten programazioaren sorreraren, bilakaeraren eta etorkizunean egin beharreko urratsen inguruan. Euskal Autonomia Erkidegoko Gorputz Hezkuntzaren inguruan euskaraz osatzen ari diren lehenengo programazioak 2007. urtean onartu zen 175/2007 Hezkuntza Curriculum Dekretuan duela abiapuntua esan zuten. Curriculum Berriri zekartzan aldaketak aztertzerakoan, programazio bateratu baten beharraz ohartu zirela eta askotariko errealitateetara egokitu zitekeen programazio bat egitea ezer ez izatea baino positiboagoa zela balioetsi zuten. Ildo horretatik, Lasarteko Mintegian zenbait pauso ematen hasi ziren:

1. Curriculumaren azterketa egitea eta 8 helburu orokor berridaztea, irakasle orok ulertzeko moduan.

2. Mailaz maila, unitate didaktikoen aukeraketa egitea.

3. Unitate didaktiko bakoitzaren helburu didaktikoak, ebaluazio-

adierazleak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak zehaztea.

4. Ikasturte honetan, unitate didaktiko horiek garatu dira. Lan sakon hori egiteko, Lasarte, Durango eta Leioako mintegiez gain, hainbat pertsonaren laguntza garrantzitsua izan dela nabarmendu zuten.

36 unitate didaktikoz osatzen da programazioa guztira. Hiru izan ezik gainerako guztiak garatuta daude, eta, falta direnetarako arduraduna izendatuta dagoenez, irailerako amaitzea aurreikusten da. Unitate guztiak eredu komun bat oinarri hartuta egin dira. Hala ere, aurrera begira eta argitara eramateko, programazio guztia osotasun-ikuspegi batetik zuzentzea eta orraztea derrigorrezkoa dela esan zuten (helburuak, edukiak, marrazkiak, etab.), eta lan mardul hori nola egin pentsatzen ari direla. Hainbat aukeraren artean, administrazioari Irleko R-400 deialdiaren bidez bideratzeko aukera luzatu zitzaiola erantsi zuten.

3. HAINBAT MINTEGITAKO AURKEZPENAK

LASARTEKO LH-KO MINTEGIA

Lasarteko mintegiak ikasturte honetan eginiko lana bi taldetan banatu zela azaldu zuten. Batzuk programa-

zio bateratuaren inguruan aritu dira, eta Bakarne Basurto, Amasorrain eskolako Gorputz Hezkuntzako irakaslea, eta Zuriñe Arsuaga, Amezketako eskolako, etorri ziren beraien esperientzia kontatzera. Zuriñek 2. mailan gauzatu duen "Zirkoa" izeneko unitate didaktikoa egiteko orduan izandako esperientzia kontatu zuen. Oso esperientzia aberatsa izan zen berarentzat, eta han bildutakoak unitatea egitera animatu nahi izan zituen, bere esperientziaren inguruko bideo bat erakusten zuten bitartean. Bakarnek, berriz, 4. mailarako "Olinpiadak" unitate didaktikoaren nondik norakoak azaldu zituen. Zerotik abiatuta eta hausnarketa sakon bat egin ondoren joste-lana egiten hasi zela azaldu zuen. Horrela, lehia aldera batera utzita jarreretan eta balioetan oinarritutako unitatea egin zuela esan zuen. Unitatea eskolako jaietan ikasle guztiei parte hartzeko modua ematen zien olinpiada batekin amaitzen zuela ere azaldu zigun. Hitzaldia emankorra eta hurbilekoa izan zen, eta izandako zailtasunetan, hartutako erabakietan, hobetzeko alderdietan eta, oro har, beraien esperientzia pertsonalean oinarritu zen.

Lasarteko mintegian beste talde batek metodologia kooperatiboa txertatzeko asmoz 6. mailarako jolas kooperatiboen inguruan prestatutako unitate didaktikoa azaldu zuten. "Denok batera" izeneko unitate, eta lehiakortasuna leuntzeko asmoz diseinatu zen. Besteak beste, Aronsonen puzzlea deritzon teknika erabili eta azaldu zuten, eta azpimarratu nahi izan zuten berori gauzatu ahal izateko beharrezkoa izan zela edukiak aukeratzea (dantzak, *body percussion*, jaurtiketak...) eta PC eramangarria erabiltzea (bideoetatik ikasten baitzuten ikasleek). Lana egiteko orduan Jesus Vicente Ruiz de Omeñacaren laguntza ere ezinbestekoa izan zela aipatu zuten. Poliki-poliki, kooperatibismoaren inguruan unitateak sortzen ari dira, eta asmoa maila guztietarako unitate didaktiko bat egitea dela azaldu zuten:

| MAILA | EDUKI MOTA | UNITATE DIDAKTIKOAREN IZENBURUA |
|-------|--------------------------|-------------------------------------|
| 1 | Ipuin motor kooperatiboa | Izaskun eta Aiako Harriak |
| 2 | | |
| 3 | Ipuin motor kooperatiboa | Bost ateko erreinua |
| 4 | Ipuin motor kooperatiboa | Azken Dakotak (txanelarekin lotuta) |
| 5 | | |
| 6 | Aronsonen puzzlea | Denok batera |

DURANGOKO LH-KO MINTEGIA

Durangoko mintegiak ikasturte honetan programazio bateratuaren inguruan lan sakona egin dutela esan zuten. Tanit Duñabeitiak, Anaitasuna eskolako Gorputz Hezkuntzako irakasleak, eta Jabi Gorbeak, Abadiño-ko eskolako irakasleak, lanaren nondik norakoak azaldu zituzten. Erronka handia izan da, hileru bildu baitira eta bost unitate didaktiko garatu baitituzte guztira. Horretarako, 3 partaideko taldeetan antolatu ziren, eta, aurrez eginda zegoen “Gure Zirkua” unitatea eredu hartuta, besteak osatzen joan ziren. Drivearen bidez, elkarlanean aritu dira, eta izandako zailtasunak eta gogoetak hurbiletik kontatu zituzten.

Programazioaz gain, *atletismo* txikiaren eta TAG errugbiaren inguruko hitzaldia eman zuten Durangoko mintegiko kide diren Jose Luis Saliok, Lekeitioko eskolako Gorputz Hezkuntzako irakasleak, eta Gorka Sanzek, Zornotzako Larrea eskolakoak.

Atletismoari dagokionez, eta gero eta atleta gutxiago daudela ikusita, azken urteotan federazioa atletismoa beste era batean lantzen hasi dela azaldu zuten, eta *atletismo txikia* esaten diote. Ikuspegi horretatik, atletismoa jolas-izaera handiagoz lantzen da, eta bakarka aritzetik jarduera guztiak taldeka egitera pasatzeak ekarri dituen onurak aipatu zituzten. Gauregunsaio guztiak teilatupean egiten direla nabarmendu nahi izan zuten. Kirol-materialei dagokionez, federazioak material berria sortu duela azaldu zuten, material bigun

eta erakargarria. Hala ere, atletismoa lantzeko orduan materiala ez dela derrigorrezko baldintza aldarrikatu zuten, birziklatzeaz gain beste edozer material erabil baitaiteke.

TAG errugbiari dagokionez, zer den eta orain dela hamar bat urte zer helbururekin sortu zen azaldu zuten. Herrialde askotan hedapen handiko jarduera da, eta ezaugarri nagusia kontaktu fisikorik ez izatea du, ez baitago atzipenik. Horrela, edonon ikasleekin errugbia lantzeko aukera dagoela aipatu zuten, kirol dibertigarria, azkarra eta araudi errazekoa baita, eta bi sexuak elkarrekin jolasteko ezaugarriak baititu. Jolasaren nondik norakoak azaltzeaz gain, jada sortuta duten materiala aurkeztu zuten, eta denon eskura jarriko zela aipatu zuten.

LEIOAKO MINTEGIA

Leioako mintegitik Edurne Perezek, Arangoiti eskolako irakasleak, eta Mari Luz Carrerok ikasturtean zehar programazioaren inguruan eginko lana azaldu zuten. Lasartetik bultzatuta, programazioaren birplanteamendu bat egitea beharrezkoa zela ikusi zuten.

Horrela, Edurnek aurkeztutako “Ingurua Ezagutzen II” unitatean, jolasa hartu dutela testuingurutzat esan zuten, eta metodologia ludiko baten bitartez lankidetzara, errespetua eta emozioak lantzeko duen garrantzia azpimarratu zuten. Ebaluatzeko garaian, egindakoa jarraitu ziola esan zuten, “Zirkua” unitatetik hainbat txantiloiekin eta erregistro-taula erabili baitzituzten berriro, programazioko

unitateen artean kohesioa indartzeko asmoz. Jolasak errepikatzearen inguruan, osasunari eskainitako denboraren inguruan eta beste hainbat arlotan zailtasunak izan zituela ere onartu zuten... Azalpen horien ondoren, Mari Luzen txanda iritsi zen, eta “Bertako jolas eta kirolak” unitate didaktikoa gogazaltzen hasi zen. Oposizioa eta lankidetzara barnean biltzen dituen unitatea dela esan zuten Mari Luzek, eta alderdi horien kontzientzia hartzea denontzat, irakasleontzat zein ikasleontzat, garrantzitsua zela esan zuten. Gaineratu zuten autonomia lantzeko aukera paregabea zela unitatea, txokoetan lan eginez. Horrek arriskua ere bazekarrela onartu arren, gatazken ebazpenerako soluzioak edota bideak jasotzen eta lantzen zirela esan zuten, arazoei irtenbideak bilatzeko guneak abian jarri... Gorka Obesoren material zoragarria erabili zuela esan ondoren, Leioako mintegiak datorren ikasturterako dituen nahiak mahai gainean jarri zituen: *brain gym*, *slackline*, erlaxazioa...



Zer-nolako garrantzia dauka isiltasunak ikaste-prozesuan



Zalantzarik ez, isiltasuna ez dago modan: merkataritza-guneetako arropa-dendetan txunba-txunba doinuek agurtzen dute bezeroa; zinemara joan, eta, aitzinako aretoen edukieraren laurdena izan arren, bi edo hiru bider dezibelio gehiago dugu; hori bai, surround... Tabernetara sartu, eta irribarrea datorkit, gure sasoiko txanpon-makinak gogora datozkidanean; tabernariez gain, aerobikeko monitoreen erdiak ere gortuta daude (aurrekoan, musika topera jarrita, mikrofonoarekin gidatutako “erlaxazio” saio baten izan nintzen: bost lagun ginen); eta, gaitzak kutsakorrak direnez, ea nor ausartzen den barriketara belarrietarako tapoirik gabe joaten...

Halaber, egunerokotasunean, badirudi, nire erlojuan behintzat, denbora gero eta azkarrago doala; eta, nire inguruan ere, gehienak presaka eta korrika ikusten ditut, horrek estresa, urduritasuna eta egonezina ekarri arren. Horrek guztiak barne-zarata izendatu dugun fenomenora erama-



Virginia BELATEGI AZPIRI
ERAIN PRESTAKUNTZA ETA AHOLKULARITZA

ten gaitu, eta, besteak beste, burua mila gauzatan izatea eta kontzentratzeko zailtasuna dakartza.

Gure presaren eta ailegatu ezinaren ondorioz, seme-alabei azkar janzteko eta gosaltzeko hamaika bider esan ondoren, umeak eskolara arineketan eskutik tiraka eramaten ditugu; eta, iluntzean, bainatu, afaldu, ipuina irakurri eta lehenbailehen erretira daitezen saiatzeko gara, eguneko jarduna bukatu eta apur batez atsedean hartu nahian.

Bestetik, eurei emateko ez daukagun denbora hori “oparitxo”-en bidez konpentsatzen saiatzeko gara, eta, egunak horrenbeste borroka-fronte izaten dituenek, seme-alabei mugak jartzeko eta ezetz esateko indarrrik gabe geratzen gara maiz gaua heltzen denean. Horrek guztiak, aipatutako barne-zarata sortzeaz gain, kolokan jartzen du etxe askotan gurasoon autoritatea ere.

Gizartearen arlo batean gertatzen dena besteetan ere errepikatzen da sarritan, eta, oiloaren eta arrautzaren eztabaidan sartu gabe, antzeko egoera topatzen dugu gaur egun ikasgeletan.

Duela berrogei urteko gela isil eta zurrunez adierazpena eta askatasuna bilatzen zuten ikaskuntza-inguruneak eman zieten bidea. Nolanahi ere, edozein erreakzio-prozesutan bezala, agian beste muturrera jo genuen, eta gelak kolorez, kantuz eta, sarritan, adiskideen rola jokatzeko zuten irakasleekin bete ziren. Eredu berri horretan, irakaslearen presentzia dilui-

DBHko eta Batxilergoko ikasleekin lanean hasi ginenean eta geletako zarata eta gazteen arreta falta eta egonezina ikusi



genituenean, horren aurrean zerbait egiteko premia sentitu genuen. Alferrik zen gure desira onenekin oso gauza interesgarriez hitz egitera han agertzea, gazteak ez baitzeuden guri entzuteko prest. Bururatzen zitzaigun irudia oso argia zen: “Mesedez, sartu aurretik, utzi barrukoei irteten”. Eta horrela hasi ginen lanean, gazteen barruak “husteko” eta lasaitzeko bide baten bila

tzen joan da urteotan, eta kanpotik goazenok askotan topatzen dugu uneko irakaslea, ikastaldea lasai lanean izateko tresnarik ez duela.

Ikasleek, oro har (eta egia esanda, guraso eta irakasleekin egiten ditugun ikastaroetan ikusten dugunetik, helduok ere bai), isilik eta adiegoteko ohitura falta handia dute. Zentro askotako korridoreetan eta patioetan, zarata-maila oso altua da, eta, gela barruan, isiltasuna zigorraren eta kontrolaren bidez lortzen saiatzen gara, nekez askotan. Isiltasun hori oso hauskorra da, eta, buelta-erdi ematen dugunean, apurtu egiten da.

DBHko eta Batxilergoko ikasleekin lanean hasi ginenean eta geletako zarata eta gazteen arreta falta eta egonezina ikusi genituenean, horren aurrean zerbait egiteko premia sentitu genuen. Alferrik zen gure desira onenekin oso gauza interesgarriez hitz egitera han agertzea, gazteak ez baitzeuden guri entzuteko prest. Bururatzen zitzaigun irudia oso argia zen: “Mesedez, sartu aurretik, utzi barrukoei irteten”. Eta horrela hasi ginen lanean, gazteen barruak “husteko” eta lasaitzeko bide baten bila.

Hezkuntza-sistematik kanpoko eragileak garen heinean gazteengana iristeko dugun ahalmena mugatua denez, lana irakasleengana bideratu behar genuela ikusi genuen, haiek direlako egunerokotasunean ikasgeletan daudenak; eta *Isiltasuna gelan* izeneko proiektua garatu genuen. Gure proposamena hiru ardatzen inguruan egituratuta dago: batetik, zarata fisikoa edo entzuten dena, *kanpo-zarata* deritzoguna; bestetik, urduritasuna, kontzentrazio falta eta egonezina, edo *barne-zarata*, eta hirugarrena, irakaslearen autoritatea edo presentzia indartzea, azken batean, hura delako itsasontzia portura eramane behar duen kapitaina, eta eskifaia arraunean jartzeko tresnak behar dituelako.

Hiru alderdiek elkarri eragiten diote, eta batean egiten diren urratsek beste bietan dute isla; irakasleei zuzendutako prestakuntza-lantegietan, hirurak jorratzen ditugu, betiere, ar-


datz nagusia barruko isiltasuna dela jakinda. Arlo psikoemotionalan jorratzen ditugun beste proiektu batzuen kaltetan izanik ere, konbentziturata gaude gainerako lan asko berez bideratuko liratekeela *barrukotasun* hori lantzen asmatuko bagenu, nor bere burua ezagutzeak eta gustura egoteak besteekiko errespetua eta balorazioa dakartzatelako, eta gure izaera eta kontraesanak ulertzeak besteek onartzera eta aniztasunera zabaltzen gaituelako.

“*Zeure burua ezagutu*” ez da atzo goizeko aholkua, eta hezkuntzak benetan gure buruaz eta inguruaz kontziente izateko tresna izan behar delakoan gaude. Sokrates maisua harira ekartzeak ematen digun aukeraz baliatuta, uste dugu ikasleei hain murtuta ematen diegun heziketa-eredutik apur bat aldentzeko eta *maieutika* berreskuratzeko saiakera egitea dagokigula, arretarik eta gogorik gabe dauden ikasleek hezkuntzan parte har dezaten, dituzten trebetasunak erabiliz eta erronka berriak bilatuz: pentsatzeari ekiten badiote, agian isilago egongo dira-eta...

Bukatzeke, daukagun esperientzia oinarri hartuta, esan genezake prestakuntzarako ahalegin handiak egin direla Hezkuntzan. Hala ere, askotan ahalegin horiek ez direnez helburu zehaztutara bideratu, atera zaien etekina murrizta izan da, trebakuntzak eskatzen duen esfortzu ekonomiko eta pertsonala egin ostean. Horren ondorioz, zentro askotan indarrak alferrik galdu dira, eta irakasleak, eskolez gain kudeatzeko hainbat kontu dituztenez, saiatzeaz nekatu egin dira, izenburu politikak dituzten ikastaroak egin ondoren esfortzu eta etekin pertsonalaren mailan geratu izan direlako.

Hortaz, prestakuntzake ez luke, berez, jomuga izan behar, beste helburu batzuk lortzeko bitartekoa baizik. Trebakuntza eta kudeaketa uztartuta garatu behar direla sinesten dugu, eta, trebakuntza-saioak antolatzea baino, erakundean txertatuko diren hobekuntza-planak dira, gure ustez, aurrera begirako bidea eta erronka.

argitalpenak



Aita oker dago

Juan Luis Zabala / Begoña Durruty

EREIN

Askotariko ipuinak biltzen ditu Juan Luis Zabala idazlearen liburu honek, zortzi guztira. Umeak helduen okerreko uste eta jokabideen lekuko dira kontakizun ia guztietan, bizitzan sarri bezala. Kasu askotan, Xuban protagonista duen sarrerako ipuinean bezala, aita da, ordea, oker dagoena.




Marimotots, POZIK

Uxue Alberdi / Julen Tokero

KATXIPORRETA-ELKAR

Irakurle berrientzat, haur txiki-entzat emozioei buruzko kartoi-zoko lau liburu argitaratu dituzte Sentituz bilduman: *Pozik*, *Beldurtuta*, *Triste* eta *Umora zakurra*. *Bizipoz* eta *Ongi etorri Pupu eta Lore* taularatutako ikuskizunetatik eratorritako narrazioak ere jaso ditu Alberdik liburu banatan.



Familia giroan

Béatrice Boutignon
TTARTTALO

Jolas-liburu honetako animaliak familiatan bilduta daude: antzekoak dira, baina, aldi berean, desberdinak. Irakurleari dagokio deskribapenen arabera familiak bereiztea. Familia eredu asko daude: familia gurasobakarrak, tribuak, familia homoparentalak... Liburu hunkigarria eta samurra, ongi pasatzeko, baina...



Dumitru

Koldo Izagirre

EREIN

Dumitru errumaniarra da izenez eta jatorriz. Bere kalterako, errumaniarra izatea eta lapurra izatea bat egiten dituen gizarte honetan. Semearentzat inguru hobeago bat nahi zuelako ekarri zuen hona Cosmin Petrescu soinu-joleak. Lagunek maite dute, Olatzek bereziki. Eta une batez, denak direla Dumitru erabakiko dute....



Nor da zomorro hau?

Carmen Queralt

KALANDRAKA-PAMIELA

Aurreirakurleei zuzenduta dagoen azal gogorreko ipuin atsegin honetan fauna ñimiñoa bizi da, eta irakulea bera ere pertsonaia bilakatzen da. Deskribapena eta miaketa praktikatzeko eta dibertsitatearen fenomenoaz jabetzeko den liburu honetan sormena, jolasa eta umorea ageri dira. Itzulpena Xabier Olasok egin da.



Txuntxurrun berdeko animalien kontakizunak

Xabier Olaso / Agurtzane Villate

PAMIELA

Saturnino satorra estimatua zen. Animalia guztiek maite zuten. Eguna joan, egunak etorri, zahartu eta ikusmena guztiz galdu zuen. Egun batean 30 animalia bisitan joan zitzaizkion. Eta ipuinak eta pasadizoak kontatu zizkieten Saturri, laburrak, ertainak eta luzeak.

hik hasi-ren proposamena

'ONEKA' CD-DVD-A

Haurrentzako 20 abesti berri, fresko eta dantzagarri

Ene Kantak egitasmoaren azken CD-DVD berria da Oneka. Haurrentzako 20 abesti fresko eta dantzagarri bildu dituzte bertan, guztiak itsasoaren gainekoak. Berriak dira zenbait, moldatu eta gaurkotutako herri-kantak, berriz, beste hainbat. Gainera, erraz imitatzeko moduko koreografiak asmatu dituzte; abesti bakoitzak bideo klip bat du, eta DVDan ikus daitezke beroriek. Eskuragarri dago urriaren 6tik, www.enekantak.com webgunean.



Eskolan zein etxean haurrekin entzuteko eta dantzatzeko aproposak diren 20 abesti berrik osatzen dute *Ene Kantak* egitasmoaren *Oneka* CD-DVD-a. Euskal Herriko kultura-, kirol- eta gizarte-arloetako pertsona ezagunek abestu dituzte kantak, eta parte hartu dute bideo klipetan ere. Horien artean dira Fermin Muguruza, Ruper Ordorika, Mikel Urdangarin, Imanol Ubeda, Hesian taldeko Zuriñe eta Fran, *El Drogas*, Kutxi Romero, Manolo Garcia eta Igor Ijorra musikariak; Alaia Martin bertsolaria; Oinatz Bengoetxea, Abel Barriola eta Jon Apezetxea pilotariak; Nagore Arizaga, Ana Isabel Martinez eta Silvia Ede-

rra Bera-Berako eskubaloi-jokalariak; eta Oier Sanjurjo, Asier Riesgo, Markel Bergara, Imanol Agirretxe, Gorka Iraizoz eta Mikel San Jose futbolariak.

Horiekin batera, Euskal Herri osoko hamabi ikastetxetako haurrek parte hartu dute egitasmoan, 500 haurrek, orotara. Bideo klip bakoitzean kanta abesten duen pertsona ezaguna agertzeaz gainera, hainbat haur ere azaltzen dira kantaren koreografia dantzatzen. Hauexek dira ekimean parte hartu duten ikastetxeak: Bilboko Karmelo ikastola, Hondarribiko Talaia ikastetxea, Tolosako Lasakorain ikastola, Leitzako Erleta ikaste-

txea, Iruñeko Buztintxuri ikastetxea, Iruñeko San Frantzisko ikastetxea, Txantreako Bernart Etxepare ikastetxea, Zangozako ikastola, Burlatako Ermitaberri ikastetxea, Tafallako Garcés de los Fayos ikastola, Zizurko Erreniega ikastetxea eta Antsoaingo Ezkaba ikastetxea. Bideoetan eta CD-DVD-aren azaletan agertzen diren irudiak Kukuxumusuk egin ditu. 15 euroren truke, *Oneka* CD-DVDa www.enekantak.com webgunean eros daiteke, .

Euskalerria irratiazen alde

Proiektuan lortzen den etekinaren erdia Euskalerria Irratiarentzat



'Ene kantak' proiektua



- CD-DVD-aren izena: **Oneka**

- Parte-hartzaileak:

- Fermin Muguruza (musikaria)
- Ruper Ordorika (musikaria)
- Mikel Urdangarin (musikaria)
- Imanol Ubeda (Bide Ertzean taldeko musikaria)
- Zuriñe eta Fran (Hesian taldeko musikariak)
- El Drogas (musikaria)
- Kutxi Romero (Marea taldeko musikaria)
- Manolo Garcia (musikaria)
- Igor Ijurra (Iruñeko orfeoiko zuzendaria)
- Alaia Martin (bertsolaria)
- Oinatz Bengoetxea (pilotaria)
- Abel Barriola (pilotaria)
- Jon Apezetxea (pilotaria)
- Nagore Arizaga (Bera-Berako eskubaloi-jokalaria)
- Ana Isabel Martinez (Bera-Berako eskubaloi-jokalaria)
- Silvia Ederra (Bera-Berako eskubaloi-jokalaria)
- Oier Sanjurjo (Osasunako futbolaria)
- Asier Riesgo (Osasunako futbolaria)
- Markel Bergara (Realeko futbolaria)
- Imanol Agirretxe (Realeko futbolaria)
- Gorka Iraizoz (Athleticeko futbolaria)
- Mikel San Jose (Athleticeko futbolaria)

- **Prezioa:** 15 euro

- Informazio gehiago eta CDa eskuratzeko aukera hemen:

www.enekantak.com



izango da; beste erdia, berriz, *Ene Kantak*-en hurrengo proiektua finantzatzeko izango da. Egitasmo horren baitako lehen CD-DVD-a 2011n egin zen, Sortzen Ikasbatuaz-en alde. *Ene Kantak* izenburupean, Haur Hezkuntzari eta Lehen Hezkuntzari begira, 19 kanta batu zituzten, horietatik 16 berriak. Bigarrena, *Neguari abesten*, 2012an argitaratu zen, diskoaren izenburuak dioen bezala, neguari buruzko abestiekin. Horietan bietan ere, Euskal Herriko pertsonaia ezagunek hartu zuten parte, bai eta hainbat ikastetxetako haurrek ere. Oraingoa, berriz, Euskal Herria Irratiari laguntzeko izango da.

Euskal Herria Irratia Iruñerriko irriti euskaldun eta independentea da, eta kohesiorako tresna garrantzitsua da Iruñerrian fisikoki sakabanaturik bizi diren 30.000-35.000 euskaldunentzat. 26 urte daramatza dialean lizentziarik gabe, Nafarroako Gobernuak behin eta berriz ukatu diolako. Proiektuak gauzatu ahal izateko, finantzaketa behar du. Horrexegatik, *Oneka* ateratzeaz gainera, proiektua Gaiarre antzokian aurkeztu zuten urriaren 15ean, arrakasta handiz. Erronka irailaren 12an bota zuten: "Baietz Gaiarre bete, Euskal Herria Irratiaren alde!". Mezua WhatsApp eta twitter bidez zabaldu zuten, eta sarre-

ra guztiak saldu zituzten bi astean.

Ene Kantak-en baitan argitaratu den *Oneka* CD-DVDak izan duen harrekin ere oso gustura daude Euskal Herria Irratiko kideak: "Auzolan hau itzela izan da hasieratik, Ene Kantak ekimeneko lagunek irratia aldeko DVDa egitea proposatu zigutenetik: kantak grabatu dituzten 23 pertsona ezagunen eskuzabaltasuna; bideoetan parte hartu duten 12 ikastetxeetako 500 haurren indarra; proiektua aurrera atera ahal izateko crowdfunding bidez 18.467 euro eman zizkiguten 689 lagunen bultzada; eta orain gutxi, urriaren 15ean, Gaiarre mukurru bete duten ia 800 lagunen besarkada".



Rebeka ARRARAS

ENPRESARIA

Urte gehiegi daramatzagu Nafarroan besteek gure nortasuna eta sentimenduak ukatuz eta gure hegala ebaki nahian, gure hizkuntzari oztopoak jartzen eta gure ikurren erabilera debekatzen. Gure atzean dauzkagu ez dakit nondik ateratako zenbait politikari, ezagutzen ez duten zerbaitekiko gorrotoz eta ezinikusiz beteta. Indarkeria aitzakiatzat hartuta, lege miserable eta onartezinak onesten ari dira azkeneko urte –gehiegi– hauean.

Penagarria eta patetiko da norbaitek besteen hizkuntza, kultura eta nortasuna gorrotatzea, zapuztea; baina herrialde bat kontrolpean edukitzeko egin ohi den lehen gauzari-koa izaten da. Baina norberaren hizkuntza, nortasuna eta kultura zapuztea, bakoitzaren ondare kulturalarekiko lotsa edo gorrotoa izatea astakeri ulertezina da. Eta zoritxarrez, nafar batzuk ere baditugu, saltsa horretan, beren abizenak eta oinarriak trai-

Erresistentzian

zionatzen. Ergelak edo gaiztoak direlako?

XVIII. mendean monarkia espainiarrak gaztelania inposatzeko politika abian jarri zuenean, baztertu eta zapaldu egin ziren penintsulako gainerako hizkuntzak. 1841etik aurrera, eskoletan haurrei euskaraz mintzatzeko ohitura kentzeko neurriak hartzen hasi ziren, oso gogorak zenbaitetan. Elizak ere izan zuen zerikusirik euskararen erabilera gutxitzeko prozesuan, gaztelania hutsez egiten zuten apaizak jarri baitzituen.

Horrela iritsi ginen 1986. urtera, Nafarroako Euskararen Legea onartu zenera. Lege baztertzaila da eta alegaltasunean uzten ditu eremu ez euskalduneko ikastolak. Baina arrazoi horrexegatik berarengatik egindako legea da.

Ni orain dela 40 eta piko urte, Nafarroako ikastola batean ari nintzen estudiantzen. Han herri desberdinetatik etorritako irakasle euskaldunak geneuzkan eta bakoitzak beren euskalkian irakasten zigun. Ultzama-koa, Gorritikoa, Baztangoa, Donapaleukoa... Andereino haiek bulego ondolan zegoen “multikopistarekin” prestatzen zizkiguten Euskal Herriko kondaira eta geografia ikasteko materialak. Nik 8 edo 9 urterekin banekizkien Euskal Herriko lurraldeak, hiri eta herriak, mendilerroak, gailurrak,

ibaiak... Beti Euskal Herriko mapa oinarri hartuta lan egiten genuen: margotu, azpimarratu, izenak jarri, kopiatu, kalkatu, gelako hormetan jarri... Geroxeago, Iñigo Aritza edota Antxo Azkara nor izan ziren; Basajaun eta Mariren ibilerak nolakoak ziren; euskal dantzak eta kantak ikasi genituen. Gure kultura maitatzen eta errespetatzen erakutsi ziguten, baina baita beste nortasun eta kulturei balioa ematen ere. Erresistentzian ginen orain dela 40 urte eta horrela jarraitu behar dugu hainbat urte gehiagoz. Oztopo guztien gainetik, “gurea” dena besteen erasoetatik defendatzen.

Gzarteak, euskalgintzak eta ikas- tolek mantendu, bultzatu eta zaindu dute euskara Nafarroan, politikari, lege eta erakunde guztien gainetik. Eta, hain zuzen ere, belaunaldi berriak izango dira Nafarroako euskararen geroa beren esku izango dutenak. Horrengatik euskara hezkuntzaren esparruan erabiltzeak garrantzi itzela du.

Eta ikusten dugunez behar izango dugu gure nortasuna, kultura eta hizkuntza defendatzeko prest izango den belaunaldiren bat baino gehiago. Hau ez da bukatu oraindik.

Gure seme-alabak beren ondare eta altxorra den hizkuntzaren maitasunean, errespetoan eta interesean hezitzen baditugu, mundu hobea egiten parte hartuko dugu.

“Euskararen lurraldea zertan datzan bertsotan, antzerkia eginez edo bideoak grabatuz ikasten duen umeak oso gerora ere gogoan izango ditu ikasgaiak. Eta hor eskurik sartuko duen gobernu-rik ez da guraso komunitate batek hala izan dadin borondaterik duen bitartean”

Andoni Egaña

Reggio Emilia



jardunaldiak

Italiako REGGIO EMILIA. 0-3 haur-eskolen pedagogiaren azalpena eta praktika

Mundu zabalean oso ezagunak dira Reggio Emiliako haur eskolak. Alde batetik, gertuko gestioa duten Udal Haur Eskola parte-hartzaileak direlako; eta bestetik, oinarri duten Malaguzziren pedagogiak haur bakoitzaren garapen osoa duelako xede. Mende erdia baino gehiago 0-6 urte bitarteko haurrekin aritu badira ere, azken 5 urteetan, eta, ildo pedagogiko bera erabiliz, 6-11 (Lehen Hezkuntza) jarri dute praktikan.

Hizlariak:

- MADDALENA TEDESCHI** pedagogo. Reggio Emiliako pedagogia arduraduna
- CHIARA SPAGGIARI** hezitzailea. Reggio Emiliako Gianni Rodari 0-3 haur eskolako hezitzailea
- ALFREDO HOYUELOS** europar doktorea. Tailerista eta UPNAko irakaslea

Azaroaren 14an BILBOko EHUren Bizkaia Aretoan

Azaroaren 15ean DONOSTIAko KURSAALen

informazio osoa eta izena emateko aukera:

***www.hikhasi.com* Tel.: 943 371 408**

Izena emateko azken eguna AZAROaren 9a

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka

ESKATU ZURE SASKIA AZAROAREN 12A BAINO LEHEN, AUZOLANARI ESKER 50 € REN TRUKE
GAINERA NAFARROA HEGOALDEKO EUSKALGINTZARA JOANGO DA EKARPEN HORREN %25A



ERRIGORA



Sortzen

aek

Karaburu

www.errigora.eus

Produktions- und Vertriebsgesellschaft der